

Komunitate kooperatiboa

Sakana Groupek 50 urte bete dituela ospatu du / 2-4



Bihar jokatuko da XLIII. Urbasako Igoera. Delfin Goikoetxea, erronkarako prest / 17

Etxebizitzaren arloko proiektu pilotua egiten ari dira, Mendialdera zabalduko dena / 9

Unanuarrei traba ez egiteko, Beriainera doazen mendizaleek badute ibilgailua non aparkatu / 7

Teknoadineko proiektuari segida eman nahi diote gobernuarekin elkarlanean / 11

Feriak direla eta, larunbat eta iganderako egitarau betea Etxarri Aranatzan / 13

Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorriak mende erdia beteko du etzi, ferietan / 18-19

Olatz Larunbe dantzariak DNA programaren egoitza lortia kultur gunean egin du / 21



ZETAKen 'Mitoaroa'-k jarraipena izanen du Bilbon: 'Mariren etorrera' / 22-23

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

Bazkide ohiek, langileek eta haien senideek bat egin zuten Sakana Group kooperatibaren lantegian larunbatean. Erakunde ekitaldiaren txanda izanen da gaurkoan. Ospakizunak, 50 urte ez baitira beti betetzen.

Fundizioa Lakuntzan. Zergatik?

Julen. Sortzaileek beraiendako zerbait nahi zuten, ez jabe baten. Fundizio bat izan zen, baina txokolate fabrika bat izan zitekeen. Lankide Aurrezkira (Euskadiko Kutxa) joan ziren eta esan zuten: "kooperatiba bat egin nahi dugu". Eta erantzun zieten: "Beno, orain badirudi fundazio baten beharra dagoela". Ez zuten ideiarik ere. Ate ondoan ikusgai dagoen motorra galdatu zuten aurrenekoa da. Txatarra. Atzetik pilo bat berdin. Ez zekitelako. Gaur egungo errefus adierazlea oso baxua da ezagutzaren transmisioa egon delako.

Koizpen sistema bera da?

Gorka. Fabrikazio prozesua, funtsean, antzekoa da. Hobekuntzak daude: ekoizpen bitartekoak nahiko optimizatu dira; kalitatea hobetzeko metal saldara botatzen diren gehigarriak... Eta esperimentiarekin ikasitakoak, prozesura txertatzen joan garenak. Batez ere, bitarteko teknikoak hobetu dira. Baina lorpen handiena harearen berreskuratzea da. Urtutako metala moldean botatzen da. Baina hura isolatzeko harea erabiltzen da. Piezak berez 60 tona pisatzen baditu, baliteke 200 tona harea erabiltzea hura egiteko. Lehen, egunero, kamioi pila joaten ziren harez beteta Lakuntzako hondakindegira. Orain harea horren %99,95 birziklatu egiten dugu. Urtean tonak eta tonak dira. Erabat aldatu da. Gauza bera esan daiteke hainbat hondakin arriskutsuren kudeaketaz eta birziklatzeaz. Birziklatzearen eta jasagarritasunaren arloan egunetik egunera lan handia egiten ari gara. Esaterako, mekanizatzean sortzen den txirbil guztia jaso, eta, atzera ere, labera bueltatzen da. Dena bertan gelditzen da. Enbalatze guztiak berrerrabiltzeko edo kon-

"Hornidura kate independente bihurtu gara guk guztia eginda"

GORKA ECEOLAZA ZABALZA ETA JULEN RAZKIN FLORES SAKANA GROUPEKO LEHENDAKARI ETA LEHENDAKARI ORDEA
Kooperatibak 50 urte bete ditu eta ospatzen ari dira

pondu eta berrerrabiltzeko diseinatzuten ditugu.

J. Bestalde, fabrikazio osoaren ikuspegi orokorra ematen digun azpiegitura digitala dugu. Gainera, digitalizazio proiektu bat dugu martxan, makinen kontsumoei, potentziei eta gainerakoiei buruzko datuak lortzeko. Guztia optimizatzeko da. Gainera, adierazle panelak ditugu, esaterako, harea, siloak eta abar kudeatzeko. Eta pieza bakoitzaren jarraipena indibiduala egiten dugu.

Fundizioa izaten hasi, baina bezeroari produktua bukatuta emateko beste zeregin batzuk ere hartu dituzue zuen gain.

J. Hemen bertan pieza guztiz bukatzeko gai garenez, kostuak asko murrizten dira. Bezeroak pieza nahi duen tokira eramateko eskatzen du, berdin zaio bidean zer egiten duzun. Prezio bat duzu eta pieza hara eraman behar diozu. Mekanizazioa, pintura eta garraioa edo logistika ditugu.

G. Gainera, hornidura kate independente bihurtzen zara, eta abantaila lehiakorra duzu gainerakoekin alderatuta. Esaterako, mekanizazioa txertatuta ez

badute, baliteke mekanizazio hori hainbat fundizioaren artean partekatzea, botila-lepo bat izan daiteke. Prozesu guztia guk eginda, hornidura kate independente bihurtu gara, beste lehiakideen kateak oztopatzen ez dituen.

Gaur egun zein sektoretarako lan egiten duzue?

J. Batez ere eolikoan. Eta fundizio astunean: makina erreminta, itsas motorra, konpresoreak, mineralak, automobilgintza... Sektore eolikorako %60-65 artean egiten dugu, eta gainerakoa beste sektoretarako egiten dugu. Baina batez ere makina erreminta, itsas motorra eta konpresoreak.

Nola erabakitzen da zein sektoretarako lan egin?

G. Bi fundizio ditugu. Bat batez ere eoliko pieza handiak egiteko. Beste fundizio txikia eolikorako eta beste sektore batzuetarako erabiltzen dugu. Horretan 2 eta 20 tona arteko piezak egin ditza-kegu. Beraz, beste sektore batzuetan ere pieza txikiak egiten lehiakorrak gara.

Kooperatiban ikerketa eta garapen saila baduzue?

G. Bulego teknikoak dugu. Eta teknologia zentroekin eta abarrek ere unean-unean kolaboratzen dugu. Merkatuan ikusten diren berrikuntzak ere gureganatzen ditugu.

Zuen sektorean bada fabrikazio gehigarria?

G. Noizbait 3D inprimaketa erabili izan dugu, pieza jakin baterako proba, baina oraindik garatu beharreko gai bat da. Bestalde, arren, moldeen eta gainerakoen fabrikazioan 3D txertatu nahi zuten bezeroekin harremanak izan ditugu. Baina, etorkizunean horretan sartu beharko gara, ziur.

Adimen Artifizialak tokia du zuen kooperatiban?

G. Zenbait gauzeekin hasiak gara lan egiten. Etorkizunean ere garatu beharreko gaia da, bai ala bai. Horrek lagunduko digu fabrikazio gai jakin batzuk aurreikusten, prozesu jakin batzuk estandarizatzen... Hor ere sartu beharko gara.

Zenbat langile zarete?

J. 261. 170 inguru bazkideak eta gainerakoak kontratatutakoak. **Zer langile profil behar duzue?**

J. Denetarik behar da: fundizio-rako eskulan zuzena, baina baita prozesu ingeniari asko ere.

G. CNC ezagutzak dituztenak. Bulego teknikorako simulazioetarako eta garapenerako. Arlo komertzialerako. Bezeroen kudeaketa: bidalketak, logistika eta abarrak.

J. Lanbide Heziketa duten mekanizatu eta mantentze lanetakoak. Kosta egiten zaigu jendea kontratatzea, ez da erraza.

G. Gauza bera segurtasun teknikariekin, ingurumena iraunkortasun gaitarako, birziklapen hobekuntzarako, eta abarrerako. Lanpostu barietate zabala dugu prozesu konplexu bat daukagulako. Denetarik langileak behar ditugu.

J. Maila guztietan prestakuntza jarraituko premia handia dugu, eta horretara ordu asko bideratzen ditugu. Azken urtetan esponentzialki hazi da. Gainera, zero jakinda sartzen dena lan bizitza bukatzean garapen bat izan du, profesionalki hazi da prestakuntzagarri, barne promozioagarri. Hori sustatzen dugu. Langileak ez du sabairik. Jendea trebatu dadila nahi dugu. Ohiko enpresetan egituraren gora egiten dute langileek. Hemen horizontalean mugitzeko aukera ere badago, sekzio batetik bestera. Kooperatibaren DNAn dago.

Lehengaiak eskuragarri daude?

G. Errusiaren gerraren kontuarekin, materialak erosteko kupo jakin bat dago. Baina azken urteetan merkaturak uzkuritu egin da, fundizioak itxi dira. Eskaera ez da hain handia. Orain arte gai izan gara lehengaiak modu erregularrean pilatzeko. Eta oraindik prezio, gutxi gorabehera, arrazoizkoan.

J. Errusia eta Ukrainiakoa piztu zenean prezioak nabarmen handitu ziren.

Elektrizitate hornidura, zer moduz?

G. Urte hauetan dugun ekoizpenarekin ongi egon gaitetzke. Baina luzera begira, ekoizpen gaitasuna handitu eta hedatu nahi badugu, galdatzeko gaitasuna handitzeko, egunak gehitzeko-eta, sarea mugatuta dago. Hori luzarora arazo bat izan liteke gaita-




TALLERES GOÑI TAILERRAK



AKABORRO II INDUSTRIALDEA • IRURTZUN



- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Bankadako lanak
- Adeitasun autoak doan
- Kristal aldaketak



680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Julen Razkin Flores eta Gorka Eceolaza Zabalza.

sunu modu garrantzitsu batean handitu nahi badugu.

Eta elektrizitatearen prezioa?

G. Duela bizpahiru urte, kaosa izan zen.

J. Errusia eta Ukrainaren artekoa piztu zen aldi berean.

G. Merkatutik kanpo jarri ziren prezioak, erabat. Eragin zigun bai guri bai bezeroei. Orain, hasiera batean, egonkorrago dago. Baina puntak izaten jarraitzen du. Galdaketekin "jolasten" ibili behar dugu, elektrizitatearen prezioari begira ia etengabe, optimizatu daitekeen jakiteko, urtzeko prestasuna dagoen, eta abar. Bezeroekin elektrizitate edo lehengaien prezioaren gehikuntzen zati bat indexatuta izaten dugu, baina ez da guztiz. Hainbat aldagai daude eta, jakina, eragina izan dezakete: zure aldekoa izan daiteke edo oso kontrakoa. Beraz, oso gertutik kontrolatu beharreko gaiak dira.

Muga zergak, gerrak... eragin dizue?

G. Gure merkatu nagusia Europa da. Baina inportazioak daude, eragina izan dezakete. Merkatu jakin batean sartzeko aukera izan genezake, baina muga zerga ezarri gero, eragin diezaguke eta txinatarrei mesede egin, edo alderantziz.

J. Gure urterik txarrenak duela lauazpabost urte izan ziren, Donald Trumpen aurreko legegintzal-

dian. Kablea gurutzatu zitzaion eta Amerikako Estatu Batuetako parke eoliko guztiak geldiarazi zituen. Hara eramateko gauza asko genituen fabrikatuta edo lotuta, eta gauetik goizera ezer gabe geratu ginen. Izugarrikeria. 2020koa guretako latza izan zen.

G. Sinatutako kontratua genuen, bolumen jakin batzuk adostuta eta, egun batetik bestera, ezeztatuta. Berriki Amerikako Estatu Batuetan (AEB) guk lan egiten dugun bezeroen offshore (haize errota itsasoan) proiektu batzuk bertan behera utzi dituzte. Horrek ere eragiten digu, nahiz eta bolumen bat adostuta duzun, baina ezinbestean murriztera behartuta badaude, eragiten dizu.

J. Hori, pandemia, Errusia eta Ukrainaren arteko gerrak lehengaiak garestitu zituen, elektrizitatearen prezioak oso altu... Astro guztiak lerrokatu ziren.

Nora saltzen duzue?

G. Nagusik, European. AEB, Hego Amerikan, Brasil esaterako, Asiarako... Offshore eolikoa Europako iparralde. Makina erreminta hemen Alemania ere bai.

Azoketan parte hartzen duzue?

G. Eolikoaren merkatua desberdina da, oso bezero kopuru jakin batera mugatuagoa dago. Gehiago da lan-harreman historikogatik, baina, beste sektore batzuetan, bezero berriak lortzeko

dira, gure burua ezagutarazi eta ateak jo behar dira.

Zer aurreikuspen dituzue?

G. Gu ondo kokatuta gaudela eta lan egiten ari garen ia sektore guztietan izen bat dugu. Ziurgabetasun handia dago European, munduan. Ikusten ari gara galdategiak ixten ari direla eta bezeroa ere badatorrela lan hori ematera. Eta gure aldeko beste puntu bat da, esaterako, HT Cren atalean, hau da, itsas motor, konpresore, makina erremintarako eta abarretarako atalean, urtean prototipo pila bat egiteko gaitasuna dugula. Bezeroak pieza konplexua edo serie laburra izango dela ikusten duenean, puntu bereizgarri bat, abantaila bat dugu hor. Serie oso luzeak badira eta abar, haiek gutxieneko plangintzarekin Txinan edo Asian erraz kudea dezakete. Baina prototipoak azkar gartzeko puntu bereizgarria dugu, gainera fidagarritasunez. Beraz, hori gure aldeko puntua da.

J. Gainera, erabakiak hemen hartzen ditugu, bertako jendeak. Beste fundizio batzuk ixten ari dira pertsona edo talde batek erabakitzen duelako errentagarria den edo ez. Eta berdin zaie gainerako guztia. Sakana Groupen hemen bizi eta hemen lanean jarraitu nahi dugun bertako jendea gaude. Beraz, 170 bazkide

horiek dute erabakitze gaitasuna osoa. Eta estutu behar badugu, estutu egiten gara, eta urte txarrak pasatu behar baditugu, azken hiruzpalauak pasa ditugun bezala, pasatu egiten ditugu. Horretan gaude. Saiatzen gara ongi gaudenean hodeietan gora ez egiten. Eta gaizki gaudenean, saiatu morala altua eta itxaropena mantentzen, hemen jarraitzeko. Beste kasu batzuetan, behera doanean, gutxi kostatzen zaie X bat egin eta errentagarria izango zaien leku batean muntatzea. Azkenean, guk hartzen ditugu erabakiak, bertako jendeak, gero tabernan edo plazan elkarrekin gaudenok. Ika-mika pila izaten ditugu ere (barrez). Jubilatu direnek ere gauza bera

"GURE URTERIK TXARRENAK DUELA 4-5 IZAN ZIREN, TRUMPEN AURREKO LEGEGINTZALDIAN"

"KOOPERATIBA JASO GENUENEAN BEZAIN ONGI EDO HOBE UZTEA DA ERRONKARIK HANDIENA"

esaten dute, haiek ere ika-mikak izaten zituztela. Baina gauza bat argi zuten: estutu behar zenean, denek egiten zuten. Oraintxe lantegira joanez gero, erabakiren baten inguruan eztabaidatzen ari den talderen bat egonen da. Baina estutu beharreko egunean, estutu egingo dugu.

Europa, zer?

J. Gu Asia proiektu batzuetan ez gara sartzen, edo askoz gutxiago sartzen gara, tokiko edukia dutelako. Hau da, han muntatuko duten parkearen ehunekin handi bat han bertan fabrikatu behar dute, logikoki, hango jendeari lana emateko. European hori ez da inoiz izan. European kanpoan egiten diren parkeak muntatzen dira, azken ukituak hemen ematen diote, Made in Europa jartzen diote, baina dena kanpotik dator. Orain aldaketa hurbilago egon daitekeela dirudi, baina, tira, oraindik ezin dira kanpaiak jo.

Bakarrik edota bazkideekin?

J. Normalean bakarrik, bakarrik. Unean-unean kolaboratzaileraren bat izan dezakegu, baina, ideia da bakarrik aritzea.

G. Mekanizazio planta muntatzeko, horren ezagutzarik ez genuenez, makina erreminta ataleko bezeroa den Soralucerekin aliantza bat egin zen. Guk pabiloia jarri genuen, Soralucek ezagutza eta makinak jarri zituen. Aliantzak hasieratik iraungitze data zuen. Ezagutza hartu genuenean, atera ziren eta lehen genuen harremanarekin jarraitzen dugu: gure bezero eta hornitzailea da. Etorkizunean, adimen artifizialarekin baliteke norbaitekin aritzea.

Lantegia mendealderantz handitzeko aukera duzue.

G. Azterketa dago, baina kontratuaren araberakoa izango da.

J. Orain dagoen egoera geopolitikoarekin oso arriskutsua da edozer egitea. Izan ere, duela 4 urte bazirudien mundua jango genuela, eta egun batetik bestera goseak hiltzen geunden. Oso argi egon beharko egoerak. Proiektua hor dago.

Etorkizuneko erronkak?

J. Bazkide gisa sartzen garenean denoi esaten digute: "erronkarik handiena da kooperatiba jaso genuenean bezain ongi edo hobe uztea". Erronka horrekin segituko dugu. Gu hemen pasakoak gara, atzetik jende gehiago etorriko da. Esandakoa: Sakanan bizi eta lan. Hurrengoendako ere hori nahi dugu.



Larunbatean omendutakoak

Urteurrenaren harira enpresak langileak, langile ohiak eta familiak lantegira gonbidatu zituen, 500 pertsona baino gehiago elkartu ziren. Aukera baliatu zuten jubilatutako bazkideak omentzeko. Hona omenduen zerrenda: Jose M^a Artola Mundiñano, Simon M^a Razkin Razkin, Andres Salinas Martinez, Ignacio Turumbay Andueza, Miguel M^a Zubeldia Bergera, Jose Andueza Ezkurdia, Miguel Arregi Marin, Santiago Bakaikoa Miranda, Jose M^a Ganboa Bergera, Miguel Lazkano Azpiroz, Lucas Andueza Berastegi, Martin Lazkano Azpiroz, Francisco Piñas Palomeque, Jose Luis Flores Lanz, Rosario Arregi Marin, Miguel Angel Lanz Huarte, Jesus Miguel Lakuntza

Madoz, Jose M^a Lazkano Azpiroz, Jose M^a Maiza Flores, Tomas Etxarri Gorriti, Francisco Mendieta Melero, Jose Miguel Flores Garciandia, Jesus M^a Bakaikoa Garcho, Esteban Ayestaran Larrañaga, Jesus M^a Berastegi Nazabal, Lucio Ezkerra Osteriz, Jose Luis Berastegi Asurabarrena, Jose Luis Imaz Araña, Miguel M^a Berastegi Asurabarrena, Gorka Etxarri Soto, Saturnino Jaka Martinez de Armañanzas, Juan Jose Soto Larumbe, Jose Luis Bailo Pérez, Juan Manuel Galarza Zubiria, Francisco Javier Jaka Lizarraga, Francisco Javier Jaka Martinez de Armañanzas, Yeray Lanz Azpilicueta, Ander Ganboa Aizpun eta M^a Pilar Lasa Zudaire.



Lantegiaren ondoan bulegoen eraikina jaso zuten. ARTXIBOA

Kronologia

1975
Sorrera. Lakuntzako parrokiaren etxean eta zineman egin zituzten aurreneko batzarrak. Handik sortuko zen fundizioa.

80ko hamarkada
Esperientzia faltak hasieran, krisiak ondoren, galera handiak eragin zituen. Baina bazkideen konpromisoari esker, eta familien babesarekin kudeaketa eredu egokia ezarri eta erronkak gainditu zituzten.

90ko hamarkada
Sektore eolikoaren sorrera. Sektore horretarako osagaiak egin zituen Europako lehen fundizioa izan zen Sakana.

Kalitate estandar altuak ezarri eta sektore horretan erreferentziatzeko enpresa bihurtu zen. Hasieran 10 tona baino gutxiagoko piezak egiten zituzten Gamesa eta Accionarendako (lehen EHN).

2000ko hamarkada
Lan bolumena handitzearekin batera, gaitasuna handitu zuen mekanizatu, pintura eta logistika atalak sortuz.

Gaur egun
Pieza handitan espezializatuta dago. Esaterako, sektore eolikora 60 tona baino gehiagoko bujeak eta bastidoreak egiten dituzte, esaterako, Vestas edo SGRE enpresendako.



Omenduei Elai Alai dantza taldekoek aureskua dantzatu zieten.



Kooperatibaren 50. urteurrenean jende asko elkartu zen.



Antolaketa izan zirenak.



Enpresaren irudia.

Datuak

- 34**
Bazkide sortzaileak.
- 270 langile**
Haietatik 170 bazkideak.
- 96.500 m²**
Ekoizpen instalazioak.
- 6**
Ekoizpen prozesu eremu desberdin.
- 100 tona**
Tamaina horretara arteko pieza handiak egin ditzake.
- 59.500 tona**
Urteko ekoizpen ahalmena.
- %75**
Esportaziora bideratutako ekoizpena.
- %5**
Etekinen kopuru hori gizarte, kultura eta kirol ekintzetara bideratzen da.



ASTEKOA

ASIER MENDINUETA

Utopiak marrazten

Horri osoa tatxoiez bete dut behin berriz, paper puta zimurtu eta zakarrontzira bota dut hamargarren aldiz. The Chemical Brothers-en erritmora gorputza berotzen ari naiz logelan dantzan. Begiak itxi eta ikastolako mahai berdeetan marrazten nituen utopien antzera, nire txoko kuttunak marrazten hasi naiz nire memorian. Begiak itxi eta, Londreseko HEAVEN diskotekara egiten dut hegan. Gau hartan ezagututako kuadrilla xeble batekin nabil dantzan. Hotzikara batek errealitatera ekartzen nau bueltan, eta langabezian nagoela gogoratzen nau, curriculum

LAGUNAK DATORKIT BURURA. PREKARIETATEA, OSASUN ARAZOAK, KALEETAN ETA ETXEETAN BIZITAKO INDARKERIAK... BIZI EZ, BIZIRAUN

gehiago botatzaak! Berriz ere begiak ixten ditut, gogor, eta Berlineko BERGHAIN diskotekako kontrol zorrotz erdi-militarra gurutzatut. Bakardadean, iluntasunean, berotasunean, mugitzen dut gorputza, lurrikarak simulatzeko prestatuta dauden baffle horien erritmora. Lagunak datorkit burura. Prekarietatea, osasun arazoak, kaleetan eta etxeetan bizitako indarkeriak... bizi ez, biziraun, batzuk psikiatrak agindutako

drogekin, beste batzuk kaleetan erositakoeekin, baina beti dantzan. Gure burumin eta buru bero guztiak dakizkigula jakiteak lasaitasuna ematen dit. Nik kuadrilla ez, baina lagun talde disfuntzional hamaika. Ba ahal dakizu noiz egin zuen zure lagunak azken aldiz negar? Nire logelan nabil, lagunaren ohorean dantzan. Londreseko Heaven, Berlineko Berghain, ikastolako zirri-borroak eta nire toki kuttun utopikoak nire lagunenez beteta imajinatzen ditut. Beste behin, begiak itxi eta logelako hotzikarak lagunaren besarkadetan bihurtzen dira. Iluntasunean. Goxotasunean. Berotasunean. Komunitatean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Baperraren kontsumoa

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

2023ko ESTUDES inkestaren arabera, 14 eta 18 urte bitarteko gazteen % 54,6k kontsumitu du baperra noizbait. Beste datu batzuk ere oso deigarriak dira. SEMCK (Sociedad Española de Medicina de Familia y Comunitaria) egindako inkestaren arabera, inkestatuen % 74,6 tabakoaren eta lurrungailuak edo katxinbak bezalako produktuen prezioa igotzearen alde daude. Erretzaileen ia erdiak ere babesten du neurri hori: guztira, % 48,4k.

Baina, honetaz gain, zer gehiago dakigu baperraren inguruan? Zigarro elektronikoen erabilera, askotan, lurrundu (*vaping*, *vapoe*) bezala aipatzen da, pertsona askok uste dutelako lurrun bat sortzen dutela, eta hori arnastu egiten dela. Baina zigarro elektronikoen partikula txikiz osatutako aerosola sortzen dute, eta hori ez da lurruna.

Lurruna, kaltegabea izan badaiteke ere, zigarro elektronikoko batetik ateratzen

den aerosola ez da ur-lurruna eta oso kaltegarria da. Honek, zigarro elektronikoen aerosolak nikotina eta biriketako gaixotasunak, bihotzeko gaixotasunak eta minbizia eragin ditzaketen beste substantzia adiktibo batzuk eduki ditzake.

Azpitarratzekoa da zigarro elektronikoko gehienek nikotina dutela, honek nerabeen garun garapenari kalte egiten diola, eta haurdunaldian erabiltzen bada, nikotinak jaiotza goiztiarrak eta jaiotzean pisu txikia duten haurtxoak ere eragin ditzakeela. Nikotinaz gain, zigarro elektronikoen eta zigarro elektronikoen "lurrunak" (aerosola) propilenglikola eta/edo landare-glizerina dute. Eszena edo antzerki lainoa sortzeko erabiltzen diren substantziak dira, eta aurkitu da biriketako eta arnasbideetako narritadura areagotzen dutela esposizio kontzentratuaren ondoren.

Honekin guztiarekin, argi dago prebentzioa oso garrantzitsua dela. Datu hauek eta kalteak zein diren jakinda, Nafarroako Osasun

Publikoaren eta Lan Institututik hamabi galdera ezberdin planteatzen dira gazteentzat. Hamabi galdera hauek ez dira epaitzeko, behatzarekin seinalatzeko edota errudun bat bilatzeko; hausnarketara, eztabaidetara bideratzeko balio du, gazteentzat, gurasoentzat edota kontsumitzen duen ororentzat. Pentsatu ahal duzu fruitu zapoarearen arrazoiaz? Ze estrategia erabiltzen ditu industriak baperra kontsumitzeko? Tabakoaren alternatiba dela uste duzu? Erretzeak edo bapeatzeak erlaxatzen zaituela uste duzu? Kontziente zara zer arnasten duten zure ondoan dauden pertsonek? Eta tabakoa, lehen uzten saiatu bazara?

Beraz, fokua prebentzioan jarri behar da, datu hauetan gizartearen behar bat ikusten delako, kontsumitzeaz haratago doana. Beste begirada bat jarri behar da, gizartearen arlo ezberdinak aztertuz, eta argi izaten horren atzean arrazoi asko daudela. Beraz, foku ezberdinetatik eutsi behar dugula gai honi heltzeko.

HIZKETAN

Entzun GUAIXE IRRATIko elkarrizketa guztiak

guaixe.eus/irratia/hizketan



HIZKETAN



guaixe

komunikazio taldea

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus
Maketatzailea:
Laura Olmos Aristorena
maietzia@guaixe.eus
GK diseinu zerbitzua:
Maidier Perkaz Urdialin
maider@gkomunikazioa.eus
Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus
Zuzentzailea:
Patxi Flores
Kolaboratzailea:
Jose Luis Erdozia Mauuleon
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

"Azarorako bukatuko dituzte eskolako lanak"

AMAIA MENDIZABAL IRAOLA ETA JOANA ZIGANDA OLANO UHARTEKO ESKOLAKO ZUZENDARIA ETA IDAZKARIA

Festei hasiera eman ondoren, eskolaren martxaz aritzeko tarte hartu zuten

A.A.I UHARTE ARAKIL

Izan ere, San Miguel eskola publikoko komunitateak piztu zuen Uharre Arakilgo festen hasiera-ko etxajua.

Nola hartu zenuten albistea?

Amaia. Sorpresa eta poz handia izan zen, egia esan. Oso pozik gaude udalak gudan pentsatzeagatik. Herrian eskolari egin zaion aitortzagatik. Opari polita iruditu zaigu eta oso pozik gaude.

Nola erabaki zenuten zeinek piztu?

Joana. Irizpide batzuk zehaztu genituen: eskolak duen aniztasunaren ordezkariaren bat egon behar zuen gurasoen artean, guraso elkarteko norbait eta zuzendaria. Eta ikasleen artean erabaki zen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikaslerik handienak egotea: Eider Garziandia, Miren Aranguren eta Souleiman Jerra.

Etxajua piztu aurretik eskolaren historia aipua egin zenituzten.

A. Aipagarria iruditu zitzaigun. 1910. eta 1915. urteen artean udal-letxea eraiki zen. 1915ean udal-letxean zegoen gela batean eskola zegoen. Duela 70 urte, 1955eko irailaren 10ean, gaur egungo eskolako eraikin zaharra mustu zuten. Aurten, berriz, eskola berritzen ari gara. Aipagarria iruditu zitzaigun hiru data horiek herriari ere jakinaraztea.



Eskola komunitateko ordezkariak etxajua bota aurretik.

"LANDA ESKOLA GARA ETA TALDE BEREAN ADIN DESBERDINEKO IKASLEEKIN LAN EGITEN DUGU"

Obrak eskolan. Zer moduz?

J. Antolakuntzari dagokionez, ez da ikasturte hasiera erraza izan. Baina langileak lanean ari dira. Udala ere bertan da, jo eta su. Irakasleek ordu asko sartu ditugu horretan, baina familien

laguntza ere izan dugu. Auzolanen bat ere egin zen. Beraz, zegoen egoera izanda, denon artean lortu dugu nahiko modu politean hastea. Eskola berrikuntza fase batean dago, bai kanpotik bai barrutik. Metodologia aldetik beti berrikuntzan ari gara. Erronka zen, eta ongi doa kontua.

Lanak noiz despidituko dituzte?

A. Badirudi azarorako guztiz bukatuko dituztela. Ikastetxeak berrikuntza batzuen beharra zuen, eta pozik hartu dugu birgaitze prozesua. Teilatua konpondu dute, galdara sistema

berritu, eraikinaren fatxada berritzen ari dira. Eskola bertututa ikusteko gogotsu gaude.

Zer osasun du eskolak?

J. 54 ikasle eta 11 irakasle gaude. Orokorrean errolda beherantz doa, gurean ere islatzen da, baina herriko haurrak bertan biltzen dira. Denak elkarrekin lan handia egiten ari gara. Ez dira ikasle asko baina eskolak oso dinamika polita dauka, aberasgarria. **Metodologian ere ahalegina egiten?**

J. Hala da. Gogotsu gaude. Ilusioa piztu digu berrikuntzak. Aurretik etengabeko aldaketetan ibili gara. Orain bai Haur Hezkuntzan bai Lehen Hezkuntzan aldaketak txertatzen hasi gara. Landa eskola gara eta talde berean adin desberdineko ikasleekin lan egiten dugu. Komunitate txiki bat gara eta horri egokitzen zaion lan egiteko moduak bilatzen ditugu. Egunero eraldatzen ari gara. Euskararen presentziarekin kezka dugu eta hori hobetzeko etengabe lanean ari gara. Eta Sakanako bederatzi eskola sarean gaude. Etengabeko elkarlana dugu, eta asko laguntzen duen koordinatzailea ere badago.

Guraso elkarrekin, zer moduz?

A. Sei kide dira. Etengabe koordinatzen ari gara. Beraiek arduratzen dira jantoki zerbitzuaz eta udan herrian antolatzen diren euskarazko udalekuetan zerikusia dute.

Zer eskatu diozue ikasturteari?

J. Ikasturte hasieran dugun ilusioa mantentzea, zeren batzuetan nekeak eragiten digu. Eta aldaketetan egiten ari garen ahalegin hori egonkortu eta pausatuz joatea. Bai ikasleak, bai familiak, bai langileak gozatzen segitzea lanean.

A. Ilusioari eustea. Sarean lan egiten dugu eta sare horretan ere elkarlanean lanean jarraitzea.

Mantentze lanak egiten ari dira santutegian

Mendiko xendaren aldamenean dagoen moztutako gurutzea ere jarri zuten berriki

UHARTE ARAKIL


Bederatziurrena despedituta, Aralarko santutegiak egun handia bizi izan zuen astelehenean, San Miguel eguna. Fededun ugari joan ziren mendi gaineko elizara. Eta haiei harrera ahal bezain ongi egiteko, sei elizkizun antolatu zituzten. Goizean lau izan ziren, azkena meza nagusia, Mikel Larranbeberre bikario nagusiak eman zuena, eta arratsalde bestelau.

Santutegira joan ziren guztiak eraikinaren iparraldeko pareta-aren kontra aldamioak ikusi zituzten. Santutegiak beharrezkoak dituen mantentze lanetarako jarrita zeuden. Han kontrahorma bat eta odor, rafe edo abazpiaren zati bat berritu dute. Azken horren konponketak heldu den urtean despeditu nahi dituzte. Gainera, teilatuko harlauzak errepasatu dituzte eta langileak teilatuan segurtasunez ibili ahal izateko ainguraketa sistema, bizi lerroa, jarri da. Hegoaldean dagoen kanpai horma eta kontrahorma bat konpondu dituzte. Lan horiek finantzatzeko mezenek emandako dirua eta Gondra Barandiaran eta Fuentes Dutor fundazioen eta Nafarroako Rural Kutxaren gizarte ekintzako ekarpenak baliatu dituzte.

Bestalde, Uharre eta santutegia lotzen dituen mendiko xendaren ertzean hiru gurutze daude. Haien kontra bitan egin dute aurten. Bi gurutze martxoko azken asteburuan ere hondatu zituzten. Moztutako gurutzea maiatzaren 17an jarri zuten bere tokian, egin ziren gazteen topaketak baliatuta. Bigarren gurutzea moztuta eta lurrean botata agertu zen agorrikoleko azken aurreko asteburuan. Hura bere tokian jarri zen Juan eta Teodoro Flores anaia arbizuarrei esker. Ondoren, hainbat fededun lekuko zirela, Alfonso Garziandia Goñi kaperauak gurutzeak bedeinkatu zituen.

Ehun urteko etxarriarra

Domingo Mundiñano Fernandezek ehun urte bete zituen irailaren 28an, igandean. Egun erabat desberdina izan zen berarendako. Aurorak etxera kantatzera joan zitzaizkion goizean. Haiendako, senideendako eta auzokideendako gosaria eskaini zuten. Elizkizunaren ondoren Gure Ametsa elkartean udalak lore sorta eta pergaminoa oparitu zizkion.





Mendizaleendako propio eraikia

Beriainek erakarritako mendizaleen autoek Unanu bertan arazoak sortzen dituzte, eta mendiko bide bazterrean aparkatuta, ingurumen kalteak. Horiek zuzentzeko bisitariendako aparkalekua egin da

UNANU
Dagoeneko erabilgarri dago Babatzetako portalanga ondoko autoendako aparkalekua. Aparkalekuak 1.406 metro karratuko azalera du, 85 metro luze eta 18 metro zabal. Lursailak 56 ibilgailurendako aparkaleku jartzeko jartzeko aukera ematen du, baina proiektuaren helburua natur gunera joango diren ibilgailuen kopurua ordenatzea da, eta, beraz, hasieran 19 aparkaleku jarri dira. Haietatik 15 ohiko aparkamendu plaza, eta bina zero isuriko eta mugikortasun mugatuko pertsonen autoendako. Azken lau plaza horien parean seinaleztapen bertikala jarri da. Gainera, aparkalekuaren sarre-raren ondoan hondakinak jasotzeko gunea dago. Lanengatik Ergoienako Udalak 38.720 euro (BEZ barne) ordaindu ditu, Unanuko Kontzejuak haren eskutan utzi baitzuen horretarako ardurara. Lana finantzatzeko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planeko 35.000 euro jaso ditu.

Beriain inguruko tontor ezagun eta preziatuenetako bat da, eta

Unanuko eta inguruetakoko mendizaletasun eta erakargarritasunari laguntzen dio. Hori guztia oso arazo garrantzitsua da unen-arrendako, naturarekin lotutako jardueretako zale asko joaten delako eta haiek hartzeko azpiegiturarik ez dagoelako herrian. Herrian eta mendira bidean ibilgailu ugari daude etengabe. Ibilgailuen fluxu horrek bisitarien segurtasuna arriskuan jartzeaz aparte, natur inguruneari ere kalte egiten dio, lurzoruaren higadurari eta paisaiaren degradazioa azkartuz. Izan ere, arautu gabeko aparkalekuak lurzorua trinkotzea, inguruko landaredia suntsitzea eta, oro har, kutsadura eta tokiko ur-baliabideak kutsatzea eragiten du edo eragin ditzake.

Pertsona fluxu hori eraginkortasunez eta behar bezala hartzeko, eta unen-arren bizi kalitateak kalterik ez izateko, kontzejuak beharrezkoa jo zuen naturalaz gozatzerako joaten diren pertsonen ibilgailuendako aparkalekua eraikitzea. Hala, mendiaren osotasuna zaindu, hiri-espazioa antolatu eta eremu natural horren

Cultur
IZan
2025

EGITARAU
OSOA

Tradiziozko arte adierazpenen egitaraua

IRURTZUN

**EUSKAL HERRIKO TXISTULARI
ELKARTEA**

TX 8.0

URRIAREN 10ean | 19:00etan

KULTUR ETXEA

Serrera doan, leku guztiak bete arte. Aldez aurretik gonbidapena
hartu behar da www.irurtzan.eus helbidean edo kultur etxean /
Jarduera oso-osorik euskaraz eginen da

Laguntzailea

ALTSASU / ALSASUA

**HUTSUN TXALAPARTA
ETA TEKNOTRAKITANA**

**Txalaparta garatzen: Tinbre aldakorreko
tresna baten aukerak aztertzen**

URRIAREN 24an | 18:00etan

IORTIA KULTUR GUNEA

Serrera doan, leku guztiak bete arte

Artolatzailea

NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our way of being | Gure modu egiteko dugun modua

Altsasuko Auziko zazpigarren zigorra beteta

Jonanek irailaren 26an bete zuen zigorra. Kontrol neurriekin, zigorra kalean betetzen ari da Julen

ALTSASU

Espainiako auzitegiek Altsasu Auziagatik jarritako zigorra bete du Jonanek. Lau terrorismo delituegatik, 50 urteko espetxe zigorra eskatu zuen fiskaltzak hasieran Jonanendako. Espainiako Auzitegi Nazionalak 9 urteko espetxe zigorra ezarri zizkion, 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik eta 6 hiru lesio delituagatik. Epaitegi bereko apelazio salak zigorra berretsi zuen. Azkenik, Espainiako Auzitegi Gorenak 7,5 urteko zigorra ezarri zion, 2,5 eta

5 urte delitu bakoitzagatik. Espainiako epaitegietako bidea 2019ko lastailaren 9an itxiko zen.

Guardia Civilak bitan atxilotu zuen Jonan. Aurrena 2016ko azaroaren 16an. 36 egun preso egon ondoren epaiketaren zain baldintzapean aske utzi zuten. Hurrena 2018ko garagarriaren 5ean. 2021eko garagarriaren 22tik zigorra kalean betetzen ari zen, kontrol neurriak betez. Preso egon zen bitartean Alcalá Meco, Soto del Real eta Zaballa espetxeetan izan zuten. Guztira 2.696 egun egin ditu zigorpean.

Epaiek emandakoa, funtsak kendu

Amiantoagatik hildako Sunsundeguiako bi langileren familiei 200.000 eurotik gorako kalte ordaina aitortzen duten epaiak izan dira. Baina "Konpentsazio Funtsak erdira murriztu du familiek kobratu beharko luketena", salatu du ELAK

ALTSASU

Iruñeko Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegiak bitan eman dio arrazoa ELA sindikatuaren Bidelagun fundazioari eta, beraz, Sunsundegui enpresan lan egin eta amiantoaren ondorioz hildako bi pertsonaren familiendako alargun prestazioak onartu ditu. ELAK jakinarazi duenez, langileetako bat pleurako mesotelio-mak jota hil zen. Epaitegiak 206.051,91 euroko kalte ordaina ordaintzera kondenatu du Sunsundegui: alargunarendako 138.914,88 euro, bi alaben eta semearendako 22.379,01 euro bakoitzarendako. Baina Amiantoagatik Konpentsazio Funtsean ezarritakoaren arabera, jaso beharreko zenbatekoa 96.621,24 eurokoa izango da, epaiak ezartzen duena baino 109.430,67 euro gutxiago.

Beste langileak biriketako minbiziaren ondorioz hil zen. Epaitegiak %40ko erreklama aitortu dio haren alargunari. Familiak orain judizialki erreklamatu dezakeen kalte ordaina, prestazioen erreklama irabazi ondoren, 172.825,31 eurokoa izango litza-teke, baina Funtsak kalte ordain horretatik 64.414,16 euro baino ez dizkio emanen. Sunsundegui hartzekodunen konkurtsoan dago, ondorioz, bi familiek, ia ziurrenik, onartu berri den Amiantoagatik Konpentsazio Funtsera jo beharko dute, enpresak ez baitu likideziarik.

Kritika legeari

ELAKo kideek salatu dutenez, "onartu berri den Amiantoagatik Konpentsazio Funtsa aplikatzearen ondorioz, biktimek ezin izango dute epaitegiak ezarritakoa jaso. Madrilen onartu berri den legea biktimak babesten ez dituzten irizpide ekonomizistek gidatzen dute, biktimak erabateko babesgabetasunean geratzen dira". Sindikatuko kideek gaineratu dutenez, "bi kasu



Nuria Alamillo, hildakoetako baten alaba, eta David Pena abokatuak. UTZITAKOA

"FUNTSA BIKTIMEN JUSTIZIARAKO ETA ERREPARAZIORAKO TRESNA IZATETIK OSO URRUN DAGO"

horiek argi eta garbi erakusten dute funtsa ez dela nahikoa, murriztailea eta diskriminatzailea dela, eta irizpide ekonomizistek erreparazio irizpideei baino gehiago begiratzen die".

Sindikatuak kideek ziurtatu dutenez, "irabazi berri diren epai horietan egiazta daitekeenez, Konpentsazio Funtsa biktimen justiziarako eta erreparaziorako tresna izatetik oso urrun dago. Ez bakarrik zenbatekoak askoz txikiagoak direlako eta abonua bakarrean ordaintzen direlako; baita ofizialki profesional gisa aitortutako gaixotasunak baztertzen direlako ere, bronkiearen neoplasia kasu". ELAKoek jakinarazi dutenez, legeak ez ditu onartzen ez minbizi gastrointestinala, ez obulutegikoa, "nahiz eta azaroaren 22ko 2023/2668 (EB) Zuzentarauak amianto-zuntzen eraginpean egoteak eragin

ditzakeen gaixotasuntzat hartzen dituen". Gaineratu dutenez, "obulutegiko minbiziaren kasu zehatzean, gaixotasun hori ez onartzeak genero-arrakala sakontzen du, eta zuzeneko diskriminazioa eragiten du amiantoaren eraginpean egon diren emakumeengan".

Funts berriak kalte ordainen onuradunak murriztu egiten dituela gaztigatu dute ELAKoek: "kanpoan uzten ditu 35/2015 Legean jasota zeuden arbasoak, anai-arrebak eta hurbilekoak". Laburbildu dutenez, "funtsak ez du modu integralean konpontzen, patologiak ikusezin bihurtzen ditu eta kanpoan uzten du biktimen familia-sarearen zati bat. Bidelagunek murrizketa hori salatu du, amiantoaren biktimen oroimena ez errespetatzeaz aparte, haien familien sufrimendua sakontzen duelako. Hildakoetako baten alabak adierazi du zein mingarria den administrazio-izapideen moteltasuna, kontuan hartuta aita 2020ko martxoan hil zela. Errekargua onartu diote amari, baina ez dakite kobratuko duten. "Epe luzeengatik eta ziurgabetasunagatik, oso zaila da dolua ixtea".



URRIAK 6 - URRIAK 10

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Astelehena 6

Teknologia egitasmoaz

Astearte 7

Uharte Arakilgo eskola

Asteazkena 8

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren balorazioa

Osteguna 9

Sakana Kooperatibaz Julen Razkin

Ostirala 10

Agenda berezia

Etxebizitzaren arloko proiektu pilotua martxan

Sakanako Mankomunitateko Etxebizitza Batzordea, Cederna-Garalur eta Sakanako Garapen Agentzia elkarlanean ari dira. Urte akaberara arte ibarrean eginen den proiektu pilotua ondoren Nafarroako Mendialde guztira zabalduko da

SAKANA

Badira urte batzuk Sakanako Mankomunitatearen baitan Etxebizitza Batzordea sortu zela. Oihana Olaberria Jaka da bertako buru. Azaldu duenez, "udal guztiendako etxebizitzarena gai zentrala da, eta gaiari elkarrekin heltzeko sortu genuen batzordea". Orain beste pauso bat eman eta "gai konplexu" horri buruzko proiektu pilotu batean parte hartuko dute udalek. Olaberriak azaldu duenez, "Cederna-Garalurrek Nafarroako Mendialdean lanketa bat egiteko asmoa zuen. Baina, azkenean, Sakanako proiektu pilotua eginen dute, ondoren, Mendialde guztira zabaltzeko". Proiektu pilotuak "udalen eta herritarren artean hautemandako arazo zehatzei erantzuteko tresna" izan nahi luke. Egitasmo berritzaile horretan Sakanako Mankomunitateaz eta Cederna-Garalurrez aparte Sakanako Garapen Agentziak ere parte hartuko du.

Egitekoak

Egitasmoa orain jarri dute martxan eta abendurako despedituko dute. Aipatutako hiru erakundeetako kideez aparte, bi arkitekto hirigilek parte hartzen ari dira egitasmoan. Udaletako arkitektoei haiekin harreman estua izateko eskatu diete. Izan ere, udal arkitektoen ezagutza ezinbestekoa izanen da proiektuak aurrera egiteko. Aurreikusitako lanetako bat etxebizitza hutsen ingurukoa da. Metodologia bat sortu nahi dute haren bidez etxebizitza hutsaren definizioa garatzeko, identifikazio-irizpideak adosteko eta udalerrietan praktikan jartzeko. "Etxebizitza hutsak identifikatzeko udalek horien merkaturatzea sustatzeko politikak egitea ahalbidetuko du, herritarren beharrianetara egokitutako neurriak diseinatzeko", azaldu du mankomunitateko batzordeko buruak.



Etxebizitza batzordearen bilera. SGA

"HAUTEMANDAKO ARAZO ZEHATZEI ERANTZUTEKO TRESNA" IZAN NAHI LUKE PROIEKTUAK

Metodologia sortzearekin batera, proiektu pilotuaren barruan, diagnosi sakona eginen da. Haren bidez etxebizitza eskariaren eta eskaintzaren egoera zein den jakin nahi dute. Baita udal hirigintza planen mugak zeintzuk diren ezagutu ere. Aldi berean, gaur egun etxebizitzaren arloan dauden ekimenen azterketa egiten dute.

Lan horiek despedituta, emaila laguntza gida izanen da. Gida hori toki erakundeei zuzendua egonen da, eta bere helburua izanen da udalek etxebizitzaren arloko erabakiak errazago hartzea.

Esan bezala, proiektuaren lehenengo fasea Sakana egingo da. "Hemen probatuko da metodologia, komunikazio ekintzak landuko dira eta etxebizitza hutsen gaia gizarte agendan kokatzeko pausoak emango dira. Horretaz

aparte, udalek beraien herrietako egoera zehatza azaleratuko dute, arazo nagusiak identifikatuz eta konponbide posibleak partekatuz", azaldu du.

Mahaia

Proiektu pilotua despeditzeko, etxebizitza mahaia sortuko dute eragileek. Mahai hori esperientziak eta ezagutzak partekatzeko topagune berri bat bezala sortuko da. Bere egitekoetako bat izanen da udalerrien arteko elkarlanari bidea ematea. "Garrantzitsua da azpimarratzea mahaia ez dela bakarrik Sakanarako pentsatua, baizik eta Nafarroako mendialde osora zabaltzeko asmoarekin planteatu dela, Sakanako esperientzia erreplikatzeko helburu nagusitzat hartuta", argitu du batzorde buruak.

Batzordea sortuz, ibarreko udalerriek, beren eskumen eta gaitasunekin, etxebizitzaren arloan elkarlanean pausoak emateko konpromisoa hartu zuten. Bidean eragile berriak batu zaizkie eta, elkarlanean eta parte-hartzean oinarrituta, proiektu berritzailea sortu dute etxebizitza arloko erronka nagusiei aurre egiteko tresna berriak sortzeko.



Autobusa Etxarrendik alde egiten. ARTXIBOA

Mugikortasun zerbitzuan izena emateko aukera

Arakildarrek udal zerbitzuaren erabiltzaile edo gidari boluntario gisa eman dezakete izena

ARAKIL

Gaur egun dagoen garraio publiko eskaintzak ez du asetzen arakildarren mugikortasun premiak. Arakilgo zortzi herritan ez da autobusik gelditzen. Eta Nafarroako Gobernuak jarritako eskaera bidezko autobus zerbitzua astean hiru egunetan bi zerbitzu besterik ez ditu eskaintzen. Hori dela eta, arakildar ugari ezin dira batetik bestera nahi bezala mugitu.

Garraiorako beharrak zein diren aski ongi identifikatuta ditu udalak. Ibarrean garraio premia adin guztietako arakildarrak dituzte, baina horiek hobe atzemateko udala Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langileekin harremanetan jarri da. Goizetan arakildarrek egiten dituzten premietako batzuk dira: udal-txean, Nafarroako Gobernuaren bulegoan edo kutxetan tramiteak egitea; Irurtzongo osasun etxera joatea; lanera joatea; Irurtzunerako erosketak egitea joatea; ile apaindegira joatea eta abar. Arratsaldeetako premiak zehatzagoak dira: udalak antolatutako ikastaroetara joatea; ikasleak Irurtzongo liburutegira ikastera joatea edo ostiraletan Irurtzongo gaztetxokora joatea.

Izen ematea

Horregatik guztiagatik, udalak erabaki zuen berak eskaintzea garraio publikoa. Horretarako Karkarcar kooperatibarekin hitzarmena sinatu eta auto elektriko bat eskuratuko du. Orain

udal garraio zerbitzua erabili nahiko luketen pertsonak zein diren jakin nahi du. Garraio premia dutenei erabiltzaile gisa galdetegi bat (labureus/78oraqfn) bete eta izena emateko eskatu die. Izen-abizenak, harremanetarako telefono zenbakia, e-posta helbidea eta adina adierazi beharko dira. Baita zein herrietakoa den ere. Garraioa zertarako den eta behin-behinekoa den edo sistematikoa den zehaztu beharko du. Udal garraio publikoa zein astegunetan erabili nahiko lukeen ere jakinarazi beharko du.

Udalak eskuratutako autoa gidatuko dutenak arakildar boluntarioak izanen dira. Dagoneko talde bat prest dago, baina bakarren batek boluntario lan hori egin nahi badu, izena emateko aukera du. Erabiltzaileen antzera, gidari boluntarioek ere galdetegi (labureus/xvusze1x) bete beharko dute.

Izena emateko 634 584 226 telefono zenbakira hots egin, arakil-kultura@gmail.com edo info@arakil.net e-posta helbideetara idatz daiteke. Epea gaur despedituko da. Datuak eskutan, eskaera zehatza zein den jakinen du udalak. Funtzionamenduari dagokionez, aplikazio baten bidez antolatuko da Arakilgo garraio publikoko zerbitzua. Udal langile batek kudeatuko du aplikazio hori. Garraio zerbitzua ez da bakarrik ibarrean egiteko, esaterako, bidaiak Lekunberrira edo Altsasura egiteko aukera izanen da ere.



KOLABORAZIOA

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Sakanako lexia konposatuak (XIV)

Oporrak atzean utzita, ote gero (auskalo) zein tokitan ibili eta gero, gure aurrekoek kasu egindako eremu zoragarri honetara itzulitakoan, aspaldiko partez, beste lexia konposatu-andana bat doakizue. Horiek guztiak Sakanako hizkeraren batean erabiliak izan dira eta lehena bakarrik esan dezakegu berez ez dela lexia konposatua (hitz bakar batez baitago osatua), adizki bat esapide moduan erabilia baizik.

Gauden! Etxarri Aranatz behintzat erabiltzen da esapide haxe. Egon aditzaren subjuntiboko forma dugu. Taldean egonik eztabaidan, esate baterako, zerbait okertzen ari dela esateko erabiltzen da, baina inor gaizki ez sentitzeko moduan, hau da, guztion ardura eskatuz, baita esaten duenarena berarena ere. *Lasai gaitezen!* esamoldearen parekoa izanen genuke. **Gauden!** *Ola segitzen badiau ez tiau gauz onik atiako!* (Gauden! Horrela segitzen badugu ez dugu gauza onik

aterako!) Gaztelaniaz *“¡Estémos tranquilos!, ¡Recapacitemos!”*.

Gibela(k) eduki Sakana gehienean erabilia izan da. Patxadatsua izan, ardurak ez hartu adierazten du. Gauzak patxada handiegiz hartu. Lasai-lasai bizi, inolako kezka edo ardurarik gabe. Gibel-handia izan. Azken hau jasoa dago EHn bigarren adieran: «2 iz. Ezerekin estutzen ez denaren jokabidea, patxada. *Gibela behar du! Gibel handikoa da gure anaia Patxi.* || pl. *Horrek dizkik gibelak!* Etxarri Aranazkoa dugu ondorengo esaldia: *Ik dazkak, ik, gibelak! Nola bizi etteke ola, orren lasei?* (Hik dauzkak, hik, gibelak! Nola bizi haiteke horrela, horren lasai?) Lizarragako hiztegiaren ageri dira hurrengoak: *Gibela ioon, ‘tener flema, pachorra’.* (Gibela eduki) *Gibel bat baaka orrek!* (Gibel bat badauka horrek!) Gaztelaniak *“no asumir responsabilidades, el que nunca se apura por nada, ser un huevazos”*.



Gingirrinetan egon/jarri, Suak harturik egon/jarri/paratu Aranatz osoan entzuten da aditz perifrasi hau. Erabat haserre egon edo jarri. Haserre bizian jarri edo paratu. Biak ala biak, pertsonaren berotze ekintza adierazten dute. Bigarrena Lizarragako hiztegiaren *subek artuuk. Ez tikobe fundementuik! Lanien asten ttuk eta e ye gauz onik eitten. Gingirriñetan jartzen ziebe!* (Ez zaukatek fundamenturik! Lanean hasten dituk eta ez diate gauza onik egiten. Gingirrinetan jartzen naiteik!) *Atzo aittan kotxie eze esan bee artu niyan ta subek artuik yon emen auben ni etxia etorri artio!* (Atzo aitaren kotxea ezer ere esan gabe hartu nian eta suak harturik egon omen zuan ni etxera etorri arte!) *Ez takit zetako faten zaan tabernaa. Gio, aldiero, subek artuik etortzen zaa!* (Ez dakit zertarako joaten zaren tabernara. Gero, aldiro, suak harturik etortzen zara!) *Iri aittu orduko gingirriñetan jartzen dek!* (Hiri aditu orduko gingirrinetan jartzen duk!). EHn, ‘suak hartu’ eta ‘sutan’ dakar azpisarrera moduan eta honen bigarren adieran ageri zaigu ‘joan’

aditzarekin: «suak hartu. 2. Haserre bizian jarri. *Suak harturik joan zen.*» Eta aditzondo moduan: «2 adb. Haserre bizian. *Sutan jarri zen gure gizona. Gogoratu hutsarekin sutan jartzen naiz. Gobernaria sutan zen eta errabiarik handienean.*» Gaztelaniaz *“encolerizarse”*.

Gizenak janik egon, Okelak ezin jasoz egon Aditz perifrasi hauetako lehena nahiko erabilera orokorrekoa dugu eta bigarrena, aldiz, Etxarri Aranatz jaso nuen. Lizarragako hiztegiaren: «okel, gorduras de un animal, utilizado en plural». Lodi-lodi egon, puzturik, erabat hazirik. Obesitate morbidoa adieraziko luke. Lehena mendealdeko hizkeretan erabiltzen dute bereziki, baina baita beste eremuetan. *Gizenak janik jarri zizkiegun txerriyek aurtan! Ez tek iye etxeti atiatzen, okelak ezin jasos zioz ta!* Obesitate kontzeptua adierazteko erabiltzen zen bigarren haxe.

Gorriak eta beltzak pasatu/ikusi Sakana osoko euskal hizkera gehienetan izan da erabilia. Gorriak ikusi. Indargarria da, gaizki pasatzea azpimarratzeko. Hona, Etxarri Aranazko hizkeraren paratua hurrengo esaldia: *Gorriyek eta*

beltzak pasatutakuek geittuk mendiyoiten gaztetan! (Gorriak eta beltzak pasatutakoak gaituk mendi hauetan gaztetan!). Gaztelaniara *“pasarlas moradas, canutas”* itzuliko genuke.

Gozoa (aditza), Gozoa(k) egon/ jarri (Aranatz, Arakil). Aditz perifrasi honek, edozein ekintza ederki, ezinhobe, egiten dela esan nahi du *Gozue jokatzan dik pilotan Ezkurdiak! Gozue kantatu zian atzo gaubien Andrexek tabernan!* (Gozoa kantatu zian atzo gauean Andresek tabernan!) Bigarrenak, norbait oso haserre dagoela adierazteko ere erabiltzen da, era ironikoan. Gaztelaniako «bueno/a(s). *Txerriye il eta ez tezubie presenteik yaman! Gozuek ziek guu etxien!* (Txerria hil eta ez duzue presenterik eraman! Gozoak zaudek gure etxean!). *Gozue jarri dek eyeizela etor ber aittu denien!* (Gozoa jarri duk ez haizela etorri behar aditu duenean!). *Gozo jarriaa neeki* (Lizarragako hiztegia). Horrela jarri dute EGAREN atariko probetako batean: *Aurreko ebaluazioan lau gai utzi nituen gainditu gabe, eta oraingoan sei. Gozoak jarriko dira gurasoak!*

DUELA 25 URTE...



Lakuntzan urte bat euskararen alde

Lakuntzar talde batek herrian ikusitako hutsune baten ondoren sortua, Aiaupenarik euskara taldeak urteak bete zuen irailaren akaberan. Taldeak bere ibilbide laburrean, besteak beste, ipuin lehiaketa, piperropil txapelketa, kontzertu bat, lehen laguntzen ikastaroa, haurrendako udaleku irekiak eta mozorro tailerra antolatu zituen. Aiaupenarike osasuntsu segitzen zuen, makina bat asmorekin. Hala ere, lehen urteurrenagatik ez zuen ospakizunik antolatu.



Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako buruak: Silbia Sesma, Juanjo Goikoetxea eta Unai Razkin.

Balorazio positiboak Teknoadinekon sakondu nahi izatera eraman ditu

Proiektuak 65 urtetik gorako pertsonen hautazkoa ez den bakardade egoerari eta haren ondorioei aurre egin nahi die. Arduradunek Ongizate Departamentuari bilera eta Nafarroako Parlamentuari agerraldia eskatu diote

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Teknoadineko proiektuaren arduradunendako zaintza "politika publikoen erdigunean" jarri behar da. Azaldu dutenez, "hautazkoa ez den bakardadea jende askorendako arazo larria da, bizitza duin eta osasungarriaren garapenari oso modu garrantzitsuan eragiten baitio". Esparru publikotik eragin nahi izan dute dinamika partekatua sustatuz. Gizarte Zerbitzuak, erabiltzaileak eta auzozainak diren 115 erakunde eta pertsona boluntarioak (dendariak, botikariak eta abar) koordinatuki ari dira lankidetzakomunitarioa garatzen. Orain arte egindakoaren "balorazio oso positiboa" da proiektuaren arduradunendako.

Azken bi urtetan gizarte zerbitzuko langileei tresna informatikoa jarri zaie, hainbat adierazleren bidez begi kolpean

ikusteko zein pertsonak paira dezakeen hautazkoa ez den bakardadea. Bestetik, 65 urtetik gorako 1.002 pertsonekin jarri dira harremanetan. Haietatik 334 bakarrik bizi dira, 141 arrisku larriko egoera atzeman zituzten eta 100 adinduk baino gehiagok onartu dute Teknoadinekok eskainitako laguntza. Bestalde, artatuta zeuden eta esku hartzea behar zuten 29 pertsona detektatu eta beste zerbitzuetara bideratu dira.

Adinaren arabera hautemandako egoerak eta beharrak aldatu egiten dira. "80 urte baino

"HAUTAZKOA EZ DEN BAKARDADEARI AURRE EGITEKO BEHARRA ARGI IKUSTEN DA"

gehiago dituzte laguntza onartu edo behar dutenen gehiengoak. Adin horretatik beherakoek Gizarte Zerbitzuei, aukerei eta abarri buruzko informazioa jaso izana eskertzen dute". Genero aldagaiari erreparatuta, emakumezkoak gehiago parte hartu dute detekzio garaian eta parte hartze dinamiketan parte hartze handiagoa dute.

Aurrera egin nahia

Gizarte Zerbitzueek egindako bidean "sakondu eta zabaltzeko" nahia dute. Horregatik, Gizarte Eskubide, Gizarte Ekonomia eta Enplegu Kontseilari Carmen Maeztu Villafranca kontseilariari bilera eskatu diote. "Egindako ibilbidea elkarrekin baloratu eta proiektuarekin jarraitzeko borondatea, komenigarritasuna eta finantzaketa partekatzeko" eskaera egin nahi

diote. Izan ere, "ezarritako helburuak betetzen ari dira eta hautazkoa ez den bakardadeari aurre egiteko beharra argi ikusten dela berretsi da".

Horregatik, proiektuko arduradunek Maezturi hiru eskaera egin nahi dizkiote. Aurrena, jarraipen batzordea sortzea, informazioa, dinamikak eta proiektuaren garapena partekatzeko eta aztertzeko. Hurrena, proiektuari jarraipena emateko formula posibleak aztertzea, bakardade ez hautatuari eta haren ondorioei aurre egiteko lanak, arreta eta zaintza neurriak finantzatzeko, ezartzeko eta garatzeko. Nafarroako Gobernuarekin urte baterako lankidetzak hitzarmena sinatu zuten joan zen urtean. Atzena, proiektuaren arduradunak prest daude haien esperientzia partekatzeko, Nafarroa osoan ezarri ahal izateko.

Bestetik, Parlamentuan proiektuaren berri emateko lan saioa egitea eskatu dute azarorako.

Zenbait ekimen martxan

Hautuzkoa ez den bakardadearen inguruan sentsibilizatzeko eta informatzeko Teknoadinekokok hainbat ekintza egin dituzte: mikro ipuinen lehiaketa, informazio esku orria, posta elektronik bidez zabaltzen den informazio buletina edo lekukotzak zituen bideo bat, Whatsapp bidez zabaldu zena.

Adineko pertsonekin harremanetan jarri ahala, proiektuan ari direnak hainbat egoera atzeman dituzte eta, ondorioz, zenbait dinamika edo ekintza komunitario martxan jarri dituzte. Esaterako, Teknoadineko taldeak aktiboki parte hartu du Altsasuko *Komunitatea Ehuntzen* talde komunitarioan. Gobernuaren osasun komunitarioko es-

trategiaren barruan, Altsasuko osasun zentroak 60 urtetik gorako pertsonen osasuna modu komunitarioan lantzeko talde eragile baten sorrera bulkatu du. Hamabostero bildu da taldea eta Osasun Publikoko Institutuaren laguntza eta gainbegiratzeari. Errealitatea ezagutzeko antolatuta zuten diagnosi saioan 35 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten. Bilkuraren ondorioekin txostena prestatu eta komunitate prozesuan aurrera egiteko zer ekintza lehenetsi, horien garapena eta ebaluazioa nola egin zehaztuko dute.

Kafeen dinamikaren bidez bakardadean dauden edo harreman berriak sortu nahi dituzten pertsonak harremanetan jarri dituzte, elkarrekin erlazioak izateko. Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasun egiten ari dira.

Zaintza Herrien txanda

Proiektuaren barruan, udazkenean komunitate prozesuak eginen dituzte Arruazun hilaren 15ean), Arbizun (hilaren 17an) eta Ziordian (hilaren 31n). Hiru herrietako biztanleei zuzendutako deialdi irekia da. Saiotetan landuko diren gaiak dira, besteak beste: bakardadearen prebentzioa, zaintza komunitarioa, harreman sozialak... Horregatik, arbazuar, arbizuar eta ziordiarak parte hartzea gonbidatu dituzte. "Landuko diren gaiak guztioi eragiten digute, eta hausnarketa kolektiboa izatea nahi dugu". Herri bakoitzean hiru arlo landuko dira: sentsibilizazioa eta prestakuntza; errealtatea eta esperientzia inspiratzaileak ezagutu eta ekintza bat definitu eta ekin. Beraz, herri bakoitzak bere esperientziak garatu eta herrirako zaintza eredu kolektibo bat eraikiko du.



"Jasotzen duzun aitortza da garrantzitsuena"

JOSE ANTONIO LEGARRA ETA MAITE MARCOS KAIXO JATETXEA

Altsasuko Kaixo jatetxearen 'Ensalamiaña'-k Nafarroako I. Entsaladilla Lehiaketa irabazi duelako "oso pozik" daude Kaixo jatetxeko arduradunak

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Kaixo jatetxeak aurten 15 urte bete ditu. Urteurrena sari batekin borobildu dute, euren "Ensalamiaña"-k Nafarroako I. Entsaladilla Lehiaketa irabazi duelako. "Entsaladillaren oreka, osagaien integrazioa, bere krematsu izana eta ogia bustitzeko ona izatea" baloratu dute. Jose Antonio Legarra eta Maite Marcos "oso pozik" daude sariarekin.

Lehiaketa gastronomiko batera aurkezten zareten lehen aldia da? Nafarroako Entsaladilla Txapelketa antolatzen duten lehen aldia da, eta gu txapelketa batera aurkezten garen lehen aldia. Nafarroako Ostalaritza Kooperatiba gure hornitzailea da, eurek antolatu zuten, eta Orkatz komertzialak animatu gintuen. Kartan entsaladilla dugunez, pentsatu genuen: zergatik ez?

Zuen plater izarretako bat da?

Baietz esango genuke. Kariño eta dedikazio askorekin prestatzen dugu. Entsaladilla ospakizunetarako prestatzen zen plater tipikoetako bat izan da beti. Oroitzapen asko datorkigu burura. Jatetxeetan entsaladilla platera egon beharko litzateke beti. Taberna edo jatetxe bateko entsaladilla batek asko adierazten du.

Hasiera batean, plater "erraza" da, baina prestakuntzan badu berea. Entsaladillak oinarritzko osagaiak ditu. Gure kasuan, patata, azenarioa, arrautza, maionesa, eta guk hegaluze pixka bat botatzen diogu. Ozpinetakoren bat jartzen diogu, baina entsaladilla gainean, topping gisa, nahi dutenek nahasi eta gustuko ez dutenek alderatzeko. Ez du sekretu berezirik, elaborazioak bai, ordea.

Fina, krematsua, gorputza duena... nolako da "Ensalamiaña"?

Entsaladilla osagaien erabilpenaren arabera da. Guk Hellmann's maionesa erabiltzen dugu. Salmonellosia dela eta, ziurtasun gehiago ematen digu. Baina maio-



Jose Antonio Legarra eta Maite Marcos, saritutako 'Ensalamiaña'-rekin.

"SARIA LORTU BERRI, GAU HORRETAKO AFARI GUZTETAN ENT SALADILLA ESKATU ZEN"

nesa hori gure egiten dugu, hau da, eraldatzen dugu, arinagoa eta krematsuagoa izan dadin.

Hori da sekretuetako bat...

Bai, beste batzuekin batera. Patatak eta azenarioak koadro txiki finetan moztzen ditugu, patatek eta azenarioek egosketa denbora bereziak dituzte...

Noiztik duzue entsaladilla kartan?

Duela seizazpi urte kartan dugu, eta pintxo gisa ere ateratzen dugu. Bat ere du gisa barran jartzen dugu, eta eskatzen digutenean momentuan prestatzen dugu; entsaladilla maneiatzeko modurik egokiena da.

Nafarroako I. Entsaladilla Lehiaketako astean dastatu zitekeen, ezta?

Bai, aste horretan entsaladilla barrara atera beharra genuen. Egia esan, harrera ona izan zuen. **38 entsaladilla aurkeztu ziren txapelketara. Irabaziko zenutela espero zenuten?**

Gehienak Iruñerrikoak ziren, Lizarrakoren bat, gu... Guk uste dugu gurea entsaladilla ona dela, horregatik aurkeztu ginen, baina ez dakizu zein punturainokoa den. Aurkezten zarean, aukera izango duzula uste duzu, baina Iruñeko ostalaritza establezimendu nagusienak bertan ikusten dituzunean pentsatzen duzu: baina hauen ondoan nola irabaziko dut...

Aurkezpenak apartekoak al ziren?

Txapelketaren oinarrietan entsaladilla aurkezteko espazioa zehazten zen, plater txikia, 5x5eko. Espazio txiki horretan gure entsaladilla ahalik eta hobekien aurkezten saiatu ginen. Entsaladilla zen oinarria, entsaladilla zirkulua, eta gainean ozpinetakoak jarri genizkion: pepinoa, azeitunak... Zaporea eta kolorea emateko izokin arrabak jarri genizkion, eta Kaixoko tipulin more txikia, ozpina, gatza eta erremolatza zukuarekin prestatzen duguna. Bukatzeko, ogi kurruskaria gaineratu genion.

Eta sekulako arrakasta lortu zuen.

Lehiaketaren lehen fasean epaimahai herrikoia zegoen, eta bigarrenean epaimahai profesionala, gastronomia kazetariak

osatutakoa. Lehen fasean epaimahai herrikoia gure "Ensalamiaña" onena zela erabaki zuen, aho batez. Eta horrek ilusio handia piztu zigun. Izan ere, norbait entsaladilla txapelketa batean epaimahai herrikoia izatera animatzen bada, argi dago entsaladilla oso gustuko duela. Beraz, epaimahai herrikoia gure entsaladilla aho batez hautatzea oso pozgarria izan zen. Bigarren fasean, epaimahai profesionalen artean estuago egon omen zen txapelketa, baina irabazi genuen eta oso pozik gaude. **Zorionak jasotzen ari zarete handik eta hemendik. Entsaladilla txapel-duna dastatzera jende asko hurbilduko zaizue.**

Saria asteartean jaso genuen, eta gau horretako afari guztietan entsaladilla eskatu zen. Halakoak gara, produkturen batek zerbait irabazten badu, denok goaz hura dastatzera. Gure entsaladillak seizazpi urte daramatza kartan, eta badirudi txapelketa irabazi duelako hobe dela orain, zapore hobe duela, nahiz eta betikoa izan. Halakoak gara.

Hemendik aurrera agian txapelketa gehiagoetara aurkeztera animatuko zarete.

Nork daki! Txapelketa batera lehen aldiz aurkeztu gara eta irabazi dugu. Zergatik ez? Entsaladilla txapelketara, kroketa txapelketara eta halakoetara agian ez da horren zaila aurkeztea, eguneroko produktuak direlako eta ez zarelako zure errutinatik asko ateratzen, baina Pintxoaren Astea beste gauza bat da. Maila izugarria da, sukaldariak ahaletin handia egiten dute, dedikazioa erabatekoa da, eta ontziteriatik hasita, elaborazioarekin jarraitu eta akaberara arte, esfortzu handia dago horren guztia irenztean. Uste dut jendea ez dela kontziente txapelketa horretarako pintxo berezi eta berri bat prestatzearen atzean dagoen lanaz eta dedikazioaz. Denbora asko eskaini behar zaio. **Entsaladilla onenaren saria lortzea garrantzitsua izango da.**

Bai, satisfazio handia. Saria baino gehiago, jasotzen duzun aitortza, egiten ari zarene ongi dagoenaren aitortza. Hori da garrantzitsuena. **Hemendik aurrera, entsaladilla mordo prestatu beharko duzue.** Asteburu honetan nabaritu da. Entsaladilla txapel-duna denez, probatzera animatuko dira berezeroak. Eta horretan gaude.

Larrezabal eta Dantzalekurako bidegorria, 2026an

Udalak proiektua azaroaren 4rako izanen du. Lanen deialdia aurten egin behar du

ALTSASU

Bidegorria San Pedroko bidea kaletik abiatuta, bi adar izanen ditu: Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutua eta Iñigo Aritza ikastolaraino eta Dantzaleku kirolguneraino.

Udalak Nafarroako Gobernuaren 312.373,76 euroko dirulaguntza jaso du. Lanek 390.467,20 euroko aurrekontua dute guztira. Diru kopuru horri lanak egiteko lursailak eskuratzeko 19 lurjaberi (haietatik 9 udalarenak dira) ordaindu beharrekoa gehitu behar zaio: 13.033,10 euro (5 euro m²-ko). Guztira, beraz, bidegorriak 404.467,02 euroko inbertsioa beharko du. Udalak, beraz, diruzaintzako gerakinetik 76.978,44 euro bideratuko ditu.

Aurtengo aurrekontuan 18.050 euroko diru saila zuen udalak, proiektua egiteko. Enpresak azaroaren 4rako aurkeztu beharko du proiektua. Bitartean udala lurjabeekin harremanetan da. Dirulaguntzaren baldintzetako bat lanak emateko deialdia urtea despiditu aurretik egitea da eta lana 2026ko irailaren 30erako despidituta egotea.

Gaur egun institutura joaten diren ikasle altsasuarrek (247 aurreko ikasturtean) ez dute garraio bidezirik. Horrek sarriera-irteera orduetan autoen, txirrindularien, herrietako autobusen eta oinezkoen joan-etorri handia sorrazten du.

Bidegorria egiteko aurrekontu aldaketa onartu zuen udalak Geroa Bairen aldeko botoarekin eta EHBilduren abstentzioarekin. Azken horrek eskatu zuen bizikleta herrian txertatzeko azterketa sakona egitea. Duela bi urte hala onartu zuen udala, baina ez dela egin gaztigatu zuen. "Halako azterketa bat egin ondoren bidegorria bezalako jarduerak gara litezkeela uste dugu. Eta Sakanako bizikleta bide sarea rekin koordinatuta".

FESTAK

ETXARRI ARANATZ

ETXARRIKO FERIAK

URRIAK 4 larunbata
12:00 Etxarriko erraldoi eta buruhandien konpartsa.
16:00-19:00 Mitologian oinarritutako jolas kooperatiboak JOKAlren eskutik.
16:00-20:00 Etxarriko Animalien erakusketa.
16:30-19:30 Sandien ekimena: Jarri zure mezua Palestinaren alde!, Etxarri Palestina elkartasun taldeak antolatuta.
17:00 Talo tailerra, Saralegitarrekin.
18:00-20:00 Txoko lasaia, musikaren eskolaren ondoan dagoen haur txokoan.
19:30 Auzatea Karrikestu elkartearen eskutik.
20:00 Salbea, Elizak antolatuta.
20:00-22:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30-02:30 Trikiteens taldearekin dantzaldia.

URRIAK 5 igandea
10:00-14:00 Ekoizle eta artisauen azoka.
11:00-13:00 Txoko lasaia, musikaren eskolaren ondoan dagoen haur txokoan.
11:00 L. Mendira Joan Etorria, Udaberri elkarteak antolatuta. Sakanako Artzaien XXI. Gazta Txapelketa.
11:15 Auzatea Larrañeta elkartearen eskutik.
13:00 Sakana Kantuz, herrian zehar.
18:30-21:30 DJ Mikeltxi musika eta animazioa.
19:00 Pilota partiduak: Igoa-Lizarraga - Murgiondo-Azpiroz; III. Open bikote profesionalen final laurdenetako partidua: Iribarren-Arbizu - Victor-Bergera.
21:00 Zezensuzkoa.



OLAZTI Errefuxiatuak bere herriari ahotsa emateagatik eskerrak eman zituen.



OLAZTI Artisau azokak eta munduko arrozak jendetza erakarri zuten.



UHARTE ARAKIL Auzate ederraz gozatzeko aukera izan zuten.



2025/10/12
**EUSKAL
HERRIKO**
ERDIGUNERA IBILALDIA



EGITARAUA

08:45
Irteera Senosiainetik (Askan)
09:30
Irteera Irañetako bordatik
11:30
Ekitaldia
13:30
Pintxopotea Irañetako bordan
14:00
Bertsolariak: Idoia Granizo eta Sahats Karasatorre
14:30
Bazkaria (20€)
Irañetako bordan (Irañetako baba txikiak)

Bazkarirako eman izena:
620 190 277
iratxomendi@gmail.com
Izena emateko azken eguna:
urriak 10

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 3

ALTSASU Urteurrena.

Altsasuko Gaztetxearen 35 urteurrena: Gazte guztiok bat eginikan ez gabiltz gerorik gabe.

17:00 Haurren txokoa.

18:00 Ipuin kontalaria.

20:00 Pintxo potea.

21:00 Altsasuko dantza taldeen emanaldia.

ALTSASU Gazte agenda.

Billar txapelketa.

18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean

LAKUNTZA Ipuin kontakizuna pailazoen eskutik.

Amazonia gara ipuin ilustratuaren kontaketa Porrotx eta Marimototsen eskutik.

17:30ean, plazan.

LARUNBATA 4

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Batuekoko iturburura, 37 kilometro.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Irakurraldia.

'Heptamerona': Bostgarren Egunaren irakurraldia, Margarita Nafarroakoak XVI. Mendean idatzita L'Heptameron liburuaren bostgarren atalaren euskarazko itzulpenaren irakurraldia, Nafarroako Ateneoak antolatuta.

lortia kultur gunean.

10:00-10:15 Ongietorria: Javier Olló, Altsasuko alkatea, eta Jabi Arakama, Euskarabidearen zuzendaria.

10:15-11:30 Goizeko irakurraldia I.

11:30-12:00 Kafe tarte eta Iñigo Larramendiren bisita gidatua Nafarroako Sorgin ehiza erakusketan.

12:00-13:30 Goizeko irakurraldia II.

13:30-16:00 Bazkaria eta ibilaldia Altsasu ezagutzeko.

16:00-16:30 Iñaki Lopez de Luzuriagaren hitzaldia: Sorgin ehiza eta Nafarroako Erreinuaren konkista.

16:30-18:00 Arratsaldeko irakurraldia.

18:00-18:45 Ixabel Etxeberria historialariaren eta Amaia Alvarez Uri idazle feministaren arteko elkarrizketa: Sorgin ehizaren eta Inkisizioaren irudikapena Nafarroako Margaritaren obran.

18:45-19:15 Heptameron abesbatzaren kantaldia.

ALTSASU Urteurrena.

Altsasuko Gaztetxearen 35. urteurrena: Gazte guztiok bat eginikan ez gabiltz gerorik gabe.

11:00 Gaztetxef.

16:30 Los Fernandez.

17:30 Jolasak eta karro poteo.

22:00 Argitu erromeria.

ALTSASU Antzerkia.

Hamlet Guayomini producciones konpainiaren antzeztanaren emanaldia: Zer gertatzen da Shakespeareren tragedia ospetsua interpretatzeko moduari buruz ideia oso ezberdinak dituzten hiru aktore Hamlet muntatzera ausartzen direnean? Algaraz eta sorpresa beteriko errusiar mendia. Sarrerak: 6 euro

19:30ean, lortia kultur gunean.

OLAZTI Rallya.

XLIII. Urbasako Igoera, Sakanako Motorsportek antolatuta. Distantzia: 5,3 kilometro eta 39 bihurgune; Nafarroako eta Errioxako Mendi Txpalketatarako baliagarria.

12:00 Entrenamendu ofizialak.

Segidan, lehen eta bigarren manga ofizialak.

18:00 Sailkapen ofizialen arigaratzea eta sari ematea.

10:00etatik aurrera, Urbasako portuan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Maspalomas

Igandea 5 19:30
Astelehena 6 19:00

El cautivo

Osteguna 9 19:00

IRURTZUN Kontzertua.

ABBA total-osoa Elkarrekin eta Irurtzungo abesbatzak eta Doimua musika bandaren kontzertua. Sarrerak: 7 euro (kultur etxean).

19:30ean, kiroldegian.

IGANDEA 5

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Barrendiola urtegia, 60 kilometro.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Urteurrena.

Altsasuko Gaztetxearen 35. urteurrena: Gazte guztiok bat eginikan ez gabiltz gerorik gabe.

17:00 Asanblada irekia.

18:00 Txupinazoa eta auzatea.

IRURTZUN Zirku ikuskizuna.

Nilu Cia. Infinit konpainiaren publiko guztiendako zirku ikuskizuna, Sendaberri Paisaia eszeniko barriak programaren barruan. Sarrerak: 8 euro.

19:00etan, kultur etxean.

ASTEARTEA 7

IRURTZUN Bertso saioa.

Bertso Jasa Bat-Bateko Jolasa bertso saio ludikoak, Nafarroako Bertso Esolak-ek antolatuta; 9 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako. Joana Ziganda eta Saats Karasatorre bertsolariekin.

17:30ean, kultur etxean.



ALTSASU Nafarroako sorgin ehiza.

Nabarralde antolatuta, Altsasuko Udalaren eta Nafar Ateneoaren laguntzarekin, Ateneoaren Heptamerona egitasmoaren barruan.

Irailaren 26tik urriaren 4ra. lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

ALTSASU Gaztetxearen 35 urtee tako argazkien erakusketa.

Urriaren 5era arte. 18:00etatik 20:00etara, Gure Etxean.

LAKUNTZA Hegoak Hegan Bubisher 15 urtez erakusketa

Bubisher Aljeriako Tindufeko errefuxiatu saharararren kanpamentuetako liburutegi eta bibliobus sarea, Sahararen aldeko liburuak.

Urriaren 24ra arte. 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.

URDIAIN Tailerra.

'Zaindu dezagun Urdiaín. Haurren herria denon eskola. Urdiaingo herri eskolako zerbitzuak eta ekipamenduak hobetzeko komunitate hausnarketa': proposamenak.

18:00etatik 19:30era, auzoan.

ASTEAZKENA 8

LAKUNTZA Bertso saioa.

Bertso Jasa Bat-Bateko Jolasa bertso saio ludikoak, Nafarroako Bertso Esolak-ek antolatuta; 9 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako. Ekain Alegre eta Saats Karasatorre bertsolariekin.

19:15ean, liburutegian.

OSTIRALA 10

ALTSASU Tailerra.

Sarean Euskaraz: 3D Inprimagailuak. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Ipuin kontaketa.

Asktasun doinuak eta Hartz nagia ipuinen kontakizuna eginen du Mitxel Elortza egileak.

18:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Kontzertua.

Euskal Herriko Txistulari Elkartearen TX 8.0 kontzertua, Cultur Izan Tradiziozko arte adierazpenen egitarauaren barruan. Sarrera: doan, aldeztu aurretik gonbidapena hartu behar da.

19:00etan, kultur etxean.

BAZKIDE ZOZKETA

Iraileko saridunak



Nera Yabar Imaz
(Arbizu)

Oscar Otsoa Etxeberria
(Ziordia)

Eneko Lakuntza Razkin
(Etxarri Arantz)

Jon Garciandia Lasa
(Etxarri Arantz)



OROIGARRIA



Jose Ignacio Lizarraga Artola

I. urteurrena
(Urriaren 3an)

Ezerk ez du hainbesteko minik ematen,
itzuliko ez denaren zain egoteak baino

Etxekoak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus
► Eskelen tarifak: 55,90 €/106,5 €/143,70€

prezio hauek BEZa barne dute.
► Bazkideek %10eko deskontua dute.
► Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

ESKERTZA



Juan Zelaia Urtasun

Familiak bihotzez eskertzen du egun hauetan jasotako babes eta maitasuna.

Marisol eta senideak

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA
Kamioi eta autobus tailerra Sakana inguruko langile bila. Mekanika, txapa eta margo ezagutzak baloratuko dira. Bidali curriculumak tallercamion10@gmail.com / 948 507 019

LAN ESKAINTZA
Auzoko Lagunak egitasmoak aisialdiko hezitzaile lanpostuak betetzeko deialdia zabaldu du: Nafarroako Taupa mugimenduak, Uharte Arakilgo udalak eta Etxarri Aranzako udalak garatutako proiektuan lan egiteko. Hezitzaileek euskaraz bizitzeko baliabideak emango dizkiete hizkuntzarekin arazoak dituzten

haur eta gazteei. Informazio gehiago 674 35 19 17 telefonon.

IKASTAROA
Altsasuko Udaleko Berdintasun arloaren ahalduzko ikastaroak: Sendabelarrak ezagutzen II eta Zoru pelbikoa ezagutzen urrian izango dira. Azaroan literatura-solasaldiak egingo dira, feminismoarekin lotutako gaiak landuko dira. Informazioa eta izen emateak Altsasuko Udaleko Berdintasun Arloan

Kafe konpondu tailerren izen ematea zabalik dago: Etxetresna elektrikoak eta beste konpontzen ikasiko duzu. Informazio gehiago eta izen ematea Altsasuko udaletxean

Mank-ek antolatutako kirol egokituko ikas-

taroetan izen ematea zabalik: Soinketa eta igeriketa, informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 948 564 866 telefonon.

OHARRA
LAB sindikatua Kubarako osasun materiala biltzen ari da: Altsasuko egoitzan (San Joan 52) urriaren 15era arte jasoko du; xiringak, esklarruak, higiegi produktak...Likidoak ezik edozein sendagai mota (iraungipen data 2026koa baldin badute) Langileon elkartasunez, blokeoa hautsi! Elkartasun kanpainaren barruan

Bularreko minbiziaren aurkako 1. Zumbathoian izen ematea zabalik: Altsasun egingo da urriaren 11n, Saray elkarteak antolatuta.

Arbizuko Txistor Egunean lanean ibiltzeko boluntario bila: Bakarraren bat laguntzera animatzen bada udaletxean eman dezake izena.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrak zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du: Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalek jakitera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hemendik aurrera.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus

Hemen eta online



iragarki laburrak .eus



IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



www.tanatoriosirache.es

Altsasu, Etxarri eta Lagun Artea, lanera

FUTBOLA Liga hasieran txukun eta bide onetik jarraitu nahi dute talde sakandarrek

Emakumezkoen hirugarren mailan Mulier liderraren kontra 5-1 galdu zuen Altsasuk. Igandean, 15:30ean, Oberena hartuko dute Dantzalekun, eta hoberena emateko prest daude altsasuarrak.

Gizonezkoetan, preferente mailan Altsasuk garaipen garrantzitsua lortu zuen Ripagainan Burlades B taldearen kontra, 3-4. Altsasu bigarrenen da sailkapenean eta larunbatean, 18:30ean, Zirauki hartuko du Dantzalekun.

Erregional mailan, Etxarri Aranatzek eta Lagun Arteak euren gol festarekin jarraitzen dute euren bigarren garaipena lortuta. Etxarri 0-4 irabazi zion Belosori, eta Lagun Arteak 5-1 hartu zuen mendean Egues C. Biek seina puntu dituzte eta bi lehenak dira sailkapenean. Etxarri Kirol Sport du aurkari igandean, 17:30ean, Orkoien. Lagun Arteak larunbatean 18:45ean jokatu du Lekunberrin, Beti Kozkor B-ren kontra.

ARETO FUTBOLA Xotako emakumeak liga hasierara batu dira

Gizonezkoetan, hirugarren mailan Beteluk 9-6 irabazi zion Altsasuri. Aralar Mendi eta Ribera de Navarra atzo jokatzekoak ziren, eta Altsasuri atseden jardunaldia dagokio. Lehen maila autonomikoan Xotak 1-5 irabazi zion Canterari eta Altsasuk 0-4 galdu zuen Los Saucen kontra. Atzo Xotak eta Arbizuk derbia jokatu zuten Atakondan, eta Altsasuk Universidad izan zuen aurkari.

Emakumezkoen lehen maila autonomikoko liga asteburuan hasiko da. Xota A-k Larragako San Miguel hartuko du igandean, 12:00etan, Irurtzungo Atakondan. Xota B-k atseden jardunaldia du.



Urte luzez San Miguel elkarteko Pilota Goxua Txapelketa antolatu zuen Agustin San Miguel zenari omenaldia egin zioten. UTZITAKOA

Agustin San Miguel zenaren omenez

PILOTA Izagirrek eta Beratek irabazi zuten giro ezin hobean jokaturako Olaztiko Goxua Txapelketako final handia. Goxua Taldeak urte luzez San Miguel elkarteko Pilota Goxua Txapelketa antolatu zuen Agustin San Miguel zena omendu zuen

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Olazti eta Ziordiko Goxua Taldeak antolatutako Olaztiko Goxua Txapelketa arrakasta handiz despiditu zen joan zen ostiralean. Garai batean San Miguel elkarrekin 49 urtez antolatutako San Miguel Pilota Goxua Txapelketa gogoan antolatu zuten txapelketa, "frontoiko ostiral gauetako giro hura berreskuratu eta pilota herrikoia sustatzeko" azaldu du Roberto Zornoza "Limon"-ek, Goxua Taldearen izenean. Eta lortu dute, txapelketak izan dituen bi kanporaketetan eta finalean frontoia lepo bete zelako.

San Miguel festetan murgilduta, Olaztiko Goxua Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak

zehazteko partida oso borrokatua izan zen. Azkenean, Floresek eta Etxebestek lortu zuten hirugarren postua, Goyari eta Zornozari 10-18 irabazita. Final handian Izagirrek eta ondoezik zegoen Beloki ordezkatu zuen Beratek lortu zuten txapela, Agirrerri eta Kamueli 9-18 irabazita.

Horretaz gain, beste bi pilota partida jokatu ziren. Kadeteetan, Gurmino olaztiarrak Espada aguraindarra izan zuen aurkari lau eta erdian. Espadak irabazi zuen, 15-18. Bukatzeko, afizionatuen lau eta erdiko finalean Igoa 22-7 gailendu zitzaion Otxoari.

Zornozak, antolakuntzaren izenean, txapelketan parte hartu duten pilotariei eskerrikeri beroe-

nak eman zizkien, "hiru ostiralean Olaztiko frontoiari bizitza emateagatik. Baita partidak ikustera gerturatu eta frontoia bete duzuen guztiei, giro oso berezia sortu duzuelako. Gozame-na izan da. Olaztik giro honen beharra zuen".

Agustin San Migueli eskerrak

Azkenik, Agustin San Miguel zenarendako esker oneko hitzak izan zituen, urte luzez San Miguel Txapelketa antolatu izanagatik. Senitartekoek bere izena zuen kamiseta, lore sorta eta liburuxka jaso zuten. "Agustini eta hari lagundu zioten guztiei esker, Olazti izena frontoi handien pare geratu zen. Eskerrik asko!".



Aurkezpena. UTZITAKOA

Ezkurdia eta Bakaikoa, txartelaren bila

Abian da 2025eko Lau eta Erdiko Pilota Txapelketa. Bi mailatan jokatu da, A Seriean eta B Seriean. Ditugun bi ordezkariak, Joseba Ezkurdia eta Joanes Bakaikoa, A seriean lehiatuko dira eta asteburuan sartuko dira lehiatzen, txapelketako final zortzirenetan. Ezkurdia Elordi izango du aurkari gaur, ostirala, Zallan (ETB1). Ezkurdia lau eta erdiko espezialista da, hiru txapel baititu, baina Elordi ez da aurkari erraza, eta arbizuarrak lan handia egin beharko du kaiolan aurrera egin nahi badu. Bakaikoa B Serieko finala irabazi zuen iaz, eta horregatik jokatzeko du A Seriean. Artolaren kontra lehiatuko da gaur, Alegian, 19:30ean, kanporaketa zailean.

Sakandarrak, Foru Komunitatea Torneoko txapelen borrokan

PILOTA / PALETA GOMA Lekunberriko eta Nafarroa Arenako finaletan palista sakandarrak daude

Asteburuan V. Nafarroako Foru Komunitateko Emakumezkoen Pilota Torneoko finalak jokatu dira, Lekunberrin eta Nafarroa Arenan. Asteartean egin zuten finalen aurkezpena. Urriaren 4an, 10:30ean, Lekunberrin, Cam-

posek eta Garmendiak, Etxarriko Gure Pilotakoak, Arrosagarayren eta Irazustaren kontra jokatu dute bigarren mailako paleta gomako finala. Horretaz gain, beste bi final jokatu dira. Esku goxuan, Martinez-Labakak

Fernandez-Peque izango dituzte aurkari, eta eliteko larruzko paletan Murillo-Sarasibarrek Nagore-Goyenatche.

Urriaren 5ean, Nafarroa Arenan, 17:30ean, lehen mailako paleta gomako finalean Inuciagak eta Gure Pilotako Larrazak Eciolaza eta Eguzkiza izanen dituzte aurkari. Eskuz, promesetan Crespo-Arratibelek Sorondo-Alberroren kontra jokatu dute finala, eta elite mailan Ibarrola-Mendiburuk Salsamendi-Mendizabalen kontra.



Finalen aurkezpena. FEDERAZIOA



Delfin Goikoetxea, autoa Urbasarako prestatzen. Alboan karrozeria edo eskola du, Alpinearen moldaketa, tailerrean egindakoa.

"Urbasa berezia da: aita aritu zen, eta nik urte asko daramatzat"

DELFIN GOIKOETXEA ESNAOLA PILOTUA

AUTOMOBILISMOA Bihar jokatu den Urbasako Igoerako beteranoetako bat da pilotu iturmendiarra (Brand PRM Proto Alpine). Eguz disfrutatzea da bere helburua

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI Sakana Motorsport eskuderiak guztia prest du biharko XLIII. Urbasako Igoerarako (ikus ordutegia agendan). Lehiatuko diren bederatzi sakandarretatik Delfin Goikoetxea da beteranoena. Iturmendiko Goikos tailerreko arduradunak txikitatik du automobilismoarekiko zaletasuna. "Amaren sabelean nengoela Rally Vasco Navarroan parte hartu nuen, ama aitaren kopilotua baitzen, Renault 4/4 autoarekin. Beraz, atera kontuak".

Goikos tailerreko arduraduna zara, aitari lekukoa hartuta.

Txikitatik aitarekin tailerrean sartuta negoen, motor artean. 10 urterekin Seat 600a prestatu nuen, gerora Formularen bat... Oso gustuko dut, zaletasun hutsa.

"LASTERKETAN BAINO, AUTOA ONGI PRESTATZEN DISFRUTATZEN DUT GEHIEN"

Aita, Jose Luis Goikoetxea, Urbasako Igoerako lehen urteetan lehiatutakoa da.

1970 aldera ariko zen. Aita Altsasuko Jose Ignacio Sunsundeguiaren kopilotua zen. Minia prestatzen zion, baina hark Porsche 911-a ekarri zuenean utzi zuen, guk lauzpabost urte genituela. Nik ez dut oroitzen. **Noiz hasi zinen lasterketetan?**

2000. urte inguruan. BMW 325 iX-a prestatu nuen. Urbasako Igoera izan zen nire lehen lasterketa eta Jaizkibel, Agiña,

Palomeras, Clavijo...egin nituen. Lasterketetan aritzea gustuko dut, baina autoa prestatzea eta moldaketak egitea askoz ere gehiago. Urbasara noa aurretik autoa prestatu dudalako, Olaztiarra familia eta lagunak gerturatzen direlako, Urbasara igo eta jaistea gustuko dudalako eta egun polita pasatzen dugulako.

Urbasako Igoeran zure helburua...

... eguna ongi pasatzea da. Ezer gehiago. Nik ez dut aparteko lehiakortasun izpiritutik izan. Inoiz. Hasieratik argi izan dut lasterketetara ongi pasatzea noa; ni ez noa irabaztera edo denborak hobetzera. Denborei ez diet kasurik egiten, ez dut zurrunbilo horretan sartu nahi. Autonomoa naiz, eta gehiegi arriskatzeagatik istripua izan eta bajan geratzea... gurutze ederra litzateke. Beraz, lasterketetan ez dut gehiegi arriskatzen. Anaiarekin Nafarroako Zirkuitura goazenean azkarrago ibiltzen naiz, zirkuitua beste gauza bat delako, askoz ere kontrolatuagoa, baina lasterketetan ez dut arriskatzen. Hori oso argi dut. Gehiago dut galtzeko irabazteko baino. Gainera, nik gehiago disfrutatzen dut hasierako prozesuarekin, autoa ongi prestatzearekin.

Auto ikusgarria duzu, Brand PRM Proto Alpine.

BMW-aren ondoren Midget-a ekarri nuen eta gero PRM-a, 2002an. Hasieran motoko motorra zuen, biziagoa, baina autoaren motorra jarri nion, Renault 18-arena, eta beranduago Audi 18 Turboarena. 150 zaldi inguru dauzka. Beste auto bat dut, Caterham Super Seven baten erreplika. Honekin ere lehiatu izan naiz Urbasan, baina azkenaldian PRM-arekin igotzen naiz.

150 zaldi, ez dira gehiegi. Auto hauek zergatik hartzen dute horrenbeste abiadura?

Pisuarengatik. Audi 18 batek 1.200-1.300 kilo izango ditu, eta PRM-ak 700 kilo inguru, hor dago aldea. Ni ez naiz motorrari zaldi gehiago sartzearen aldekoa. Ongi badoa, seriekoa utziozu, eta eman ahal duen gorena emateko adorea baduzu, orduan zaldi gehiago sartu. Baina zaldi asko sartzea,

"ESKUDERIAKOEK LAN ITZELA EGITEN DUTE ANTOLAKUNTZAN, PILOTUEK ONGI PASA DEZAGUN"

kontrolrik gabe, alferrik da. Ditutun zaldi guztiak ongi kontrolatzen badituzu, hobeki ariko zara kontrolatzen ez dituzun zaldi pilo batekin baino.

Aurten autoari aldaketaren bat egin al diozu?

Aurten direkzioa moldatu diot. Direkzio elektrikoa jarri diot, Renault Clio baten motor txikia sartuta. Auto honek direkzio zuzena du, eta gurpil horiekin, bolantea mugitzeko nahiko gogorra geratzen zen. Direkzio elektrikoarekin arinago mugitzen da. Gauzak berritu, moldatu... asko gozatzen dut. Ordu asko sartzen ditut, eta gustura. Autoein ibiltzea, ez dut beste zaletasunik.

Autoaren karrozeria edo eskola, Alpinearena, ikusgarria da.

Moldea Bartzelonatik ekarri nuen eta hemen egin genuen guztia, eskuz, tailerrean. Aurrealdean Alpinearen itxura mantendu genion, baina atzealde guztia moldatuta dago. Nola? Espuma sartuz eta hamaika esperimentu eginez. Ordu asko sartu genituen. Karrozeria hori bakarra da, ez dago besterik. Joan zen urtean Alpinche auto mitikoa ekarri zuten Urbasara, Porsche motorra duen Alpine klasikoa, eta gurearen ondoan jarrita, argazkia atera genien bie. Bakarrak direlako.

Zer du Urbasako igoerak?

Niretako berezia da, bere garaian aita korritu izan zuelako, ni askotan aritu naizelako, nire lehen proba izan zelako eta etxeko proba delako. Oso gutxitan egin dut kale, konpromisoren bat izan dudanean bakarrik. Hamabost edizio baino gehiagotan ariko nintzen, seguru. Eguz, soilik Urbasan lehiatzen naiz. Beste probaren batean aritzea nahiko nuke, baina ez dut astirik. **Sakana Motorsportek lasterketa aurrera atera ahal izateko egiten duen lana aipatzekoa da.**

Lasterketan parte hartzen dugunok baino meritu handiagoa dute antolaketan aritzen direnak. Baimenak, aseguruak, guztia prestatu... lan handia egiten dute gu ongi pasatzera joan gaitezen. Eskertzekoa da.

Ikusleak autora gerturatzea gus-tuko al duzu?

Baimena eskatuz gero, ez dut inolako arazorik. Haurrak igotzea, argazkiak ateratzea... gustatzen zait. Jende asko etortzen da argazkiak ateratzera, halako autoak ez direlako asko ikusten.



Aiert Lizarragak, Rafael Larraza "Txifli"-k eta Miguel Ulaiarrek, Joan-Etorriaren mende erdia gogoratu zuten. MIKEL ETXAIZ SAN ROMAN

Mende erdia joan-etorrian

MENDI LASTERKETAK Urriaren 5ean, igandean, 50 urte beteko ditu Etxarri Aranazko Mendira Joan-etorria lasterketak. Mende erdia bete badu ere, lasterketak sorburua duen apustuaren ibilbidea mantentzea lortu du urte hauetan

Mikel Etxaiz San Roman

ETXARRI ARANATZ

"Ezetz igo Etxarriko kruzetik mendi gainera 40 minutu baino gutxiagoan". Horrela hasi zen Patxi Huizi eta bere bi lagun Felix Igoa Mozo eta Angel Agirrerren arteko apustua. Guztira, lau mila pezeta jokoan. Erronka onartu eta irabazi egin zuen Huizik, goizeko seietan lanera joan baino lehen. Irabazitakoarekin, "Bar Urbasa"-n afaltzera lagun bat gonbidatu zuen. Eta ondoren, San Ferminetara. Eta orain, 50 edizio eta gero, ehun korrikalari baino gehiagok parte hartuko dute apustu gisa sortutako lasterketa honetan. Miguel Ulaiar eta Rafael Larraza, "Txifli", etxarriarrek utzi dituzte iada antolakuntza lanak, baina aspaldi hasi ziren laguntzen. Aiert Lizarragari, aldiz, urte gehiago gelditzen zaizkio oraindik lagun-

tzeko. Udaberri elkarteak izan da urte guzti hauetako antolatzailea. Aurtengo edizioa, ordea, berezia da. Mende erdia ez da askotan ospatzen.

Apustu batetik lasterketa federatu batera

1975eko apustua gaur egungo edizioarekin alderatuz gero, zetik gutxi ikusten ditu Ulaiarrek: "Ibilbidea bai. Hori mantendu egin dugu, behintzat". Antolakuntzan orain baino jende gehiago behar zela aitortu du. "Lehen, boligrafoa, papera eta erlojua besterik ez zen behar.

"NAHIZ ETA UDABERRIK ANTOLATU, HERRIAK BERE PARTE SENTITZEN DU JOAN-ETORRIA"
AIERT LIZARRAGA

Oraingo txip-ekin soberan dago jende asko", onartu du atzetik Txiflik. Gaur egungo teknologiak, nahiz eta korrikalari dezente gehiago egon, asko erraztu ditu lanak. Batzuk "mendi gainean" eta beste batzuk behean. Horrela banatzen omen ziren antolakuntzako kideak hasierako edizioetan. Walkie-talkie bidez eramaten zuten korrikalarien gaineko kontrola, nahiz eta batzuetan, ezin izan elkarren artean komunikatu.

Aspaldiko kontuak besterik ez dira hauek. 50 urte beranduago errazagoa baita lasterketa kontrolatzea. Pentsaezina zaio Ulaierri gaur egun horrela ibiltzea: "Txip-ekin asko erraztu da dena". Lasterketak bere historia luzean izan duen bilakaera arrakastatsua dela eta, Nafarroako zirkuituan sartzerari iritsi da. Gaur egun, Federazioa egiten da kargu, eta

horrek, aitortu du Lizarragak, "asko lagundu du".

Testuinguru bakoitzak aldaketak eskatzen ditu. Gauza asko aldatu egin dira. Ez, ordea, ibilbidea. 10 kilometro "eskas" direla dio Ulaiarrek. Hala ere, zerbait aldatu zuten aspaldi. Hasiera batean, udaletxetik hasi eta udaletxean bertan bukatzen zen lasterketa. Baina horrek ez zion herriari giro gehiegi ematen. Beraz, plazan amaitzea erabaki zuten hirugarren ediziotik aurrera. Horrela, lasterketa udaletxean hasten da, bargara sartu eta mendi gainera igo egiten da. Bertan buelta eman eta bide beretik jaitsi egiten da plazara.

Mendi-lasterketen "boom"-a hemen ere

Azken hamarkadetan mendi lasterketak bigarren plano batetik protagonista izatera iritsi dira. Edizioak geroz eta jendetsuagoak diren honetan, eta gazteen artean hedatuagoak dauden honetan, Mendira Joan-Etorria ez da salbu.

Ulaiarrek aspaldi gordetzen ditu edizio bakoitzeko erregistroak: lehenengo apustuko ziurtagiritik 2012ra arte. Sei kidek besterik ez zuten parte hartu bigarren edizioan. Beste sei hirugarrenean. Eta iaz, ehun eta hogeita hiru. Diferentzia argia da, eta are gehiago, lasterketa Ferietako igandean egiten dela kontuan hartzen badugu. Izan ere, hasierako edizioa uztailean egin zen, San Ferminetan, zehazki. Gero, Ferietako igandera mugitu zuten. Txiflik badaki gazte askorentzat "astelehen latza" badela igandekoa.

Hala ere, muga bat jarri behar izan dute antolakuntzatik: 150

parte-hartzaile gehienez. "Gure mendiak ez du hainbesterako ematen", onartu du Lizarragak. Ezin dituzte hainbeste korrikalari horrelako aldapetan sartu. Ibilbide zirkular bat izango balitz, agian bai, baina joan-etorriaren ibilbidea negoziatzina da.

Errekorrak apurtzeko erronka

Marka bat hausteko erronka batetik sortu zuten apustua. 40 minutu baino gutxiagoan egin behar zuen Patxi Huizik joan-etorria. 37 minututan egin zuen, zehazki. Horrela jaso zuten duela mende erdi bat Ulaiarrek gordetzen duen ziurtagirian. Bertan, UDABERRI elkartearen sinadurarekin, apustuaren nondik-norakoak jasotzen dira. Hor dago gaur egungo Mendira Joan-etorriaren jaiotza. Huiziren marka hobetzeko sortu ziren hurrengo edizioak, eta gaur egun, bi errekor daude apurtzeko gai.

Alde batetik, gizonezkoetan, Juan Mari Garin gipuzkoarraren denbora menderaezin bihurtu da 2001etik. 42 minutu eta 50 segundutan egin zuen joan-etorria, eta momentuz, ezin izan du inork hautsi. "Jendeak geroz eta gehiago entrenatzen du, errekorra apurtzeko prestatzen da. Baina ezin dute Harrigarria da", azaldu du Lizarragak. Emakumezkoetan, aldiz, duela lau urte hobetu zuen errekorra Maria Ordoñez nafarrak. Lau segundu hobetu zuen marka eta joan-etorria 52 minutu eta 14 segundutan burutu zuen.

Aurtengo edizioaren berezitasuna kontuan hartuta, Lizarragarentzat polita izango litzateke errekorra etxarriar batek apurtuko balu. Ulaiar eta Txiflik, ordea, oso "zaila" ikusten dute.

Hasierako edizioetako sailkapenak eta erregistroak. UDABERRI ELKARTEA

Azken urteotan egondako irabazle etxarriar bakarra 2021ean gailendu zen. Pandemia garaia ziren, eta “etxarriarrek besterik ezin zuten parte hartu”, gogorazi du Lizarragak.

Errekorrak apurtu edo ez, korrikalari eta ikusleek auzatea izango dute, tradizio bihurtu den moduan. Udazkenean sartu gara bete-betean, eta salda bero bat edonork hartuko du gustora.

Izen ezagun batzuk

Ulaiarrek atentzio handiz bete eta gorde izan ditu hasieratik edizioetako erregistroak. Eskuz idatzitako eta margotutako papertxoetan, 1976ko edizioa ditu gordeta. Lehenengoa ere, noski. Apustuaren ziurtagiria. Eta 36 urtez, erregistro guztiak eraman ditu berak. Gero, Internet eta teknologien erabilerarekin, kontrola galdu du eta iada ez du lista pasatzen. Hala ere, Txifli-ekin batera, gogora ekarri ditu

izen batzuk: “Ander Unzurrunzaga etxarriar askotan irabazi izan du proba”. Altsasuar bat ere ezin izan dute aipatu gabe utzi: Antonio Salgado, oso ohikoa izan baita urte askoz lasterketa honetan. Tomas Mauleonek, adibidez, hamazazpi aldiz parte hartu du Ulaiarren erregistroak esan bezala.

Derrigorrez egin beharreko erronka gisa hartu dute erregistroen kontua. Hurrengo urteurrenerako, behintzat, zehatzago eta antolatuago bildu nahi dituzte edizio guztien eta parte hartzaile guztien erregistroak.

Beste 50 edizio, oparirik onena

Nafarroako lasterketarik zaharrenetarikoa da Joan-etorria. 50 urteetan, urtero ospatutako ia bakarra, “bakarra ez bada”, dio Txiflik. “Lakuntzakoa agian gurea baino lehenago antolatzen hasi ziren. Urte batzuk, besterik ez” uste du Lizarragak. Txiflik

argi utzi du: “Ez, ez, ez”. Modu batera edo bestera, argi dagoena aurtengo edizioa berezia dela da. Udaberri elkarte antolatzaile nagusia bada, lasterketa herriarena bihurtu dela aitortu du Lizarragak. Orain arte ez da arazorik izan urtero antolatzeko eta zorionez, urtero egin da lasterketa. Ezta pandemia bat ez da gai izan etxarriarrei haien Joan-etorria antolatzeko gabetzeko. Bide batez, antolakuntza ez da itsasoaren beste aldean gertatzen ari denaz ahaztu, eta aurtengo dortsal guztiek erakutsiko diote elkartasuna Palestinari.

Begirada atzera botaz gero, antolakuntzarik eta herritarren laguntzarik gabe ezinezko ikusten dituzte hirurok Mendira Joan-etorriaren 50 edizioak. Mende erdi honekin batera, lasterketak beste mende erdi bat bete dezala da desiorik handiena, Txifliaren esanetan, “nahiz eta ez ikusi”.



2020ko edizioan, korrikalariak gora.



Ander Unzurrunzaga, 2018ko edizioan. Askotan irabazi du proba.



MENDIRA JOAN-ETORRIA

1975-KO SAN FERMIN ETAN

“APOSTUA”

ETXARRIKO “KRUZETIK – MENDI GAÑERA”

JOAN 40 MINUTOTAN

APOSTUA: BI MILA PEZETA ALDE BAKOITZETIK

Mendira Joan-Etorriko lehen apustu edo edizioaren kartela. UDABERRI ELKARTEA



2024ko 49. Mendira Joan-Etorriko podiuma.

"GEHIAGO GIROTZEKO, BUKAERAN PLAZARI BUELTA BAT EMATEA ERABAKI GENUEN"
MIGUEL ULAIAR

"POLITA LITZATEKE AURTEN ETXARRIAR BATEK IRABAZIKO BALU LASTERKETA"
AIERT LIZARRAGA



xapatero
taberna

Ongi pasa ferietan!

948 460 162 - Etxarri Aranatz



kaxeta
LIBURUDENDA

Ongi pasa ferietan!

www.kaxeta.net

628 542 519 | 948 460 477

Instagram | Facebook



PORTUKO
ofidenaia

Ongi pasa ferietan!

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)

Etxarri Aranatz: 948 460 988



Gorka Acebes eta Iñaki Garmendia olaztiarrak, Urbanan gora.

Urbanan, zoragarri

MENDI LASTERKETAK Korrikalariek gozatu ederra hartu zuten XVII. Olatzagutia Urbasa Mendi Lasterketan. Aimar Larrea izan zen azkarrena, eta emakumezkoetan Maite Etxezarreta helmugatik gertu gainditu zuen Izaskun Beunza olaztiarra

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Primerako eguraldiarekin jokatzen zen Sutegi elkarteak antolatutako XVII. Olatzagutia Urbasa Mendi Lasterketa (16,4 km, 850 m +). Ia 180 korrikalari zeuden izena emanda. Sutegikoak oso

kontentu zeuden, horietatik 64 sakandarrak zirelako, tartean 19 olaztiar. "Korrikalari olaztiarren errekorra gainditu dugu" zioen, pozarren, Fermin Zornoza. Guztira 151 korrikalarik lortu zuten proba gainditzea.

Lasterketa bizi-bizi atera zen, eta 12. minuturako goian zeuden korrikalariak, Ziordia dermio aldera egiteko prest.

Aurten ibilbide berria mustu zuen Olaztiko lasterketak: Gazbide tumulutik, Altsasuko portutik, Bargagaindik, Larrakarte tumulutik, ikazkiñen bordatik eta Urbanako begiratokitik pasa zen. "Toki oso ederretatik ibili dira, korrikalariei asko gustatu zaie" nabarmendu zuen Zornoza.

Aimar Larrea antzuolarra hasiera-hasieratik jarri zen lasterketa buruan. Ibilbide guztian erritmoari eutsi, aldeak eta tarteak ongi kontrolatu, eta bakar-bakarrik iritsi zen helmugara (1:22:03), Lekunberriko Iñigo Lasarteren (1:22:57) eta Georg Paulmann alemaniarren aurretik (1:23:46). Lehen sakandarra Jon Gil izan zen, helmugan seigarren (1:27:03). Bizikleta utzi

eta aurten mendi lasterketetan hasi denetik, ikusgarri ari da lakuntzarra. Gorka Acebes, helmugan hamargarren (1:28:25), lehen olaztiarra izan zen.

Izaskun Beunza, gutxiatik

Emakumezkoetan, Izaskun Beunza olaztiarra aurretik joan zen lasterketa ia osoan. Olaztira iristerakoan, helmugatik oso gertu, atzetik erasoan zetorren Maite Etxezarreta azpeitiarrak olaztiarra gainditu zuen eta Etxezarreta izan zen txapelduna (1:35:37), Izaskun Beunzaren aurretik (1:35:46). 9 segundo eskasek izan zuten errua, baina aurreko astean Beriain Km Bertikalean Nafarroako txapelduna izatetik herriko proba "oso gogotsu" zetorren Beunzak ongi hartu zuen gertatutakoa, eta Etxezarreta zoriondu zuen. Andrea Aristu olaztiarra izan zen hirugarrena (1:45:52).

Beteranoen saria Sergio Serrano idiazabaldarrak (1:28:20) eta Ainhoa Gonzalez gasteiztarrrak (1:54:34) jaso zuten. Olaztiarren sariei dagokienez, emakumezkoetan Izaskun Beunza, Andrea Aristu eta Zuriñe Argüelles (1:58:43) izan ziren saridunak, eta gizonezkoetan Gorka Acebes, Iñaki Garmendia (1:30:55) eta Egoitz Aldaz (1:46:57).

Festa giroa

Helduen lasterketa martxan zegoen bitartean, Olaztin 39 gaztetxok txikien lasterketetan parte hartu zuten. San Miguel festak zirenez, haurrendako puzgarriak zeuden plazan. Helmugara iritsi eta sari ematea prestatu bitartean, Sutegik auzate ederra antolatu zuen plazan, eta korrikalariek lasterketako pasadizoak izan zituzten hizpide. Mendi lasterketak hurrengo urtera arte esan du agur. Aurretik, abenduaren 31n, San Silvestrearen txanda izango da. Aurten 25 urte beteko dira lehen edizioa egin zenetik.

SAKANDARRAK

OLATZAGUTIA URBASA

GIZONAK		
1	Aimar Larrea	1:22:03
6	Jon Gil	1:27:03
7	Ander Iraizoz	1:27:24
10	Gorka Acebes	1:28:25
12	Iraitz Goñi	1:29:32
13	Adrian Martinez	1:30:36
14	Iñaki Garmendia	1:30:55
17	Jose Luis Beraza	1:32:25
19	Jorge Azanza	1:32:57
23	Iraitz Berastegi	1:35:10
28	Joxeja Maiza	1:35:50
30	Jon Mendia	1:36:50
36	Adrian Claver	1:39:32
38	Aimar Araña	1:41:28
41	Ibon Ubeda	1:42:57
43	Ruben Izko	1:43:11
45	Ioseba Iza	1:44:42
47	Roberto Ziordia	1:44:43
52	Mikel Galarza	1:45:58
55	Patxi Cano	1:46:44
57	Egoitz Aldaz	1:46:57
62	Iñaki Garcia	1:47:38
63	Raul Audikana	1:47:44
65	Ibon Arregi	1:48:43
66	Juan Larrea	1:48:44
68	Aritz Irigoien	1:48:57
74	Oihan Vinagre	1:51:14
76	Andoni Azanza	1:51:52
77	Eñaut San Vicente	1:51:55
78	Asier Leiza	1:52:01
83	Fran Araña	1:53:11
86	Peio Bengoetxea	1:54:05
87	Mikel Beloki	1:54:06
90	Iban Martin	1:54:31
92	Mikel Solas	1:54:52
96	Inhar Olabide	1:55:29
97	Alfredo Estrada	1:55:41
98	Raul Lage	1:56:02
102	Joseba Imaz	1:57:00
104	Nicolas Fernandez	1:57:38
113	Javier Beloki	1:58:58
116	Alberto Arrizabalaga	2:00:20
129	Asier Agirre	2:09:10
130	Juanjo Otsoa	2:09:35
131	Eneriz Besga	2:11:30
136	Ioni Araña	2:19:43
142	Gorka Ruiz	2:23:37

EMAKUMEAK		
25	Maite Etxezarreta	1:35:37
27	Izaskun Beunza	1:35:46
51	Andrea Aristu	1:45:52
73	Paula Diaz	1:51:14
82	Aizea Beraza	1:52:43
112	Zuriñe Argüelles	1:58:43
117	Irati L. De Goikoetxea	2:00:37
118	Sarabe Arakama	2:00:49
132	Irune Argüelles	2:12:11
133	Oihana Ganuza	2:18:39
134	Jaione Loban	2:18:40
137	Izaskun Landa	2:20:21
139	Virginia Echavarri	2:21:33
149	Silvia Perez	2:40:08
151	Vanessa Galbete	2:45:59



XVII. Olatzagutia Urbasako saridunak. MIKEL MONTESINOS



Zuriñe Argüelles olaztiarra.



Jon Gil, lehen sakandarra.



Dantza garaikidean murgiltzen eta sustatzen

Olatz Larunbe dantzariak Nafarroako Gobernuaren DNA programaren barruan egoitza artistikoa egin du lortia kultur gunean; 'Eten ez dena' lana sortzen egon da. Egitasmoaren barruan, dantza garaikideko tailerra eta erakustaldia egin ditu

E. R. B. ALTSASU

Nafarroako Gobernuaren DNA programaren helburuetako bat dantza garaikidea sustatzea eta zabaltzea da, eta xede horrekin egoitzak antolatzen ditu herrialdean zehar. Horietako egoitza batean parte hartu du Olatz Larunbe dantzariak, eta irailean lortia kultur gunean izan da *Eten ez dena* lana sortzen. Harekin

batera Clarissa Costagliola, Madi Muñoz eta Olaia Valle dantzariak izan dira. "Ikerkuntza prozesuaren barruan egon gara. Gehienbat alderdi fisikoa landu dugu, eta azken bi aste hauetan dramaturgia landu dugu; nola landu mugimenduarekin egin ditugun gauzak istorioa kontatzeko ahalegin horretan", azaldu du Larunbek. Egitasmoaren ba-

rruan, Irantzu Gonzalez Dantza Eskolan dantza garaikideko ikastaroa eman zuen eta, urriaren leian, orain arte sorkuntza prozesuan egindakoaren erakustaldia egin zuten.

Dantza

"Txikitatik". Larunbe euskal dantzan hasi zen, gimnasia erritmikoa ere egin zuen, eta "beti-

danik" mugimenduarekin zerikusia zuten diziplinetan egon da; "ez dantza garaikidea, baina ballet egiten ere hasi nintzen...". Dantza garaikidearekin duela sei urte hasi zen, Laida Aldaz etxarriarrak zuzentzen duen Faktoria Coreography Centerren hasi zenean, "hor bi urtez egon nintzen ikasketak egiten, eta hortik aurrera audizioak egin nituen Bartzelonako konpainia batean sartzeko, eta orain hortxe lanean ere nago". Sorkuntza prozesuak, lan propioak eta konpainiako lanak uztartzen ditu dantzariak. "Aurten proiektu askotan nago, nire proiektuak sortzen, aurreko urtean ere dueto bat egin nuen eta biran gaude ere, eta aldi berean konpainia batean dantzaria naiz. Datak koadratzea zailena izaten da". Hurrengo astelehenean Eslovaquian egongo da, eta bi astetan Bruselan, "eta bat-batean bolo bat daukat Los Arcosen". Dantzariaren "zailtasuna" hori dela esan du, "ez dela zerbait finkoa".

Irailearen 1etik Altsasuko lortia kultur gunean izan da, hiru dantzariarekin batera, *Eten ez dena* proiektua sortzen. "Aurretik sekulako lana dago: kontzeptua, dena antolatu... Baina dantzariarekin Altsasun izan zen gure lehenengo elkargunea". Urriaren leian bukatu zuen egoitza, "entsegu ireki" batekin.

Lehenengo bi astetan "ikerketak lana" egin zuten: "Laurak dantzari profesionalak gara, eta bakoitzak bere lengoaia fisikoa dauka; lehenengo aste horietan gure elkarte arteko lengoaia zein zen ikusteko erabili genituen". Hitz egiten hasi ziren, "kasu honetan mugimenduarekin". Larunbek contact eta inprobisazioa lantzen ditu, gehienbat, "eta badaude printzipio batzuk tek-

nika horietan, eta horiek landu behar dira". Hortik abiatuta eta inprobisazioetatik materiala "finkatzen" hasi ziren; pertsonaiak, rolak... "Poliki-poliki". Urriaren 1eko erakustaldia ez zuten bukatutako lan bat erakutsi, "oraindik ez dago estruktura finko bat, baina puzzlearen zatitxoak ikusten joaten dira". Uhartetako Zentroan egingo dute bigarren egoitza, eta bertan pieza sortzen jarraituko dute. "Apirilean izango da estreinaldia, eta gero Nafarroan zehar emanaldi gehiago izango ditugu. Estreinaldia Altsasun izatea espero dugu, nahi dugu".


Bitartekaritza

DNA programaren barruan dantzariak bitartekaritzak egin behar dituzte: "Nolabait jendea dantzara gonbidatzeko edo jendeak ikus dezan zer ari den gertatzen bere herrian; baita dantzaren mundua goraiatzeko ere". Dinamika "asko" daude, "agian kafetegi batean sartu eta hor emanaldi bat egin", baina Altsasun Irantzu Gonzalez Dantza Eskola zegoela ikusita, "oso aproposa ikusi nuen joatea eta mediazio hori dantzaren inguruan dagoen jendearekin egitea. Hor badagoelako *link* zuzen bat". Irailearen 29an, dantza garaikideko klasean tailerra eman zuen Larunbek; "luxua" izan zela esan zuten parte hartzaileek. Bestetik, bitartekaritzaren barruan ere "entsegu irekia" egin zuen urriaren leian.

"OSO APROPOSA IRUDITU ZITZAIKAN MEDIAZIOA DANTZA ESKOLAN EGITEA; 'LINK' ZUZENA DAGO"

Technoaren menpean

Irailearen 27an ospatu zen lehenengo Altsasu Tech Techno jaialdia. Herriko disko jartzaileek parte hartu zuten, eta emaitzarekin "pozik" egon ziren. Jaialdi polita izan zela esan dute. Hala ere, alokatutako materialaren pieza bat lapurtu dutela salatu dute DJek adierazpen batean. Antolakuntzari eta herritarrei emandako laguntza eskertu nahi izan diete ere.



Dantzarien topaleku

Orritz, Ostadar, Taupa, Murixka eta Amaiur dantza taldeak Altsasun izan ziren Etorkizuna Dantza Taldeak irailaren 27an antolatutako Altsasuko Dantzari Egunean. Dantzariak euskal dantza zabaltzeko zuten herri osoan zehar; Foru plazatik atera, eta San Juan, Zumalakarregi plazetan eta lortia zabalgunean emanalditxoak egin ondoren, Foru plazan amaitu zuten.





'Kantari', Altsasun

Haur eta gaztetxoei euskarazko abestiak eta musika gerturatzeko helburu duen Kantari ikuskizuna azaroaren 21ean izanen da, Iortia kultur gunean. Altsasuko Udalak eta Guaixe Fundazioak elkarlanean ekarri dute ikuskizuna Sakanara, Korazonistas, Iñigo Aritza eta Zelandi ikastetxeen laguntzarekin. Hurrengo urratsa, azaroaren 7ko entsegua izanen da.



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Ikasturte hasierarako liburu gomendioak



KLASE SOZIALAK BADIRA

Plantel lantaldea Txalaparta argitaletxeak euskaratu du hurrei zuzendutako liburuxka hau. Ilustrazio koloretsuen bitartez, eta testu gutxi erabiliz, argi eta garbi adierazten du zer diren klase sozialak. Hona hemen, editoreek idatzitako oharra:

Liburu hau gaztelaniaz argitaratu zuen La Gaya Zientzia Bartzelonako argitaletxeak, Biharko Liburuak izeneko bilduman, 1977. eta 1978. urteetan. Baziren pare bat urte Franco diktadorearen hil zela, eta, garai hartan, aldaketa demokratikoak itxaropen ziren. Txalaparta argitaletxeak liburuxka hau berreskuratu du; liburuan esaten direnak ezagunak baditugu, biharko

liburu zena gaurko den seinale. Espero dugu ez dela luzaroan hala izanen.

RESET

Aitziber Etxeberria Euskarazko zientzia fikzio distopiko eleberria idatzi du oraingoan Aitziber Etxeberriak. Kalustro Zuriak gidatzen duen "M" eremuko gizarte teknologiko eta aurreratuan, ustezko zuzentasunaren distira iluntzen duten itzal uneak hedatzen hasi dira han-hemenka.

Azken Bateratzean eratu zen klasetan banaturiko gizarte berriaren ongizatea bermatzea da, Segurtasun Departamentu buruaren, Mararen, egiteko nagusia. Zilar pribilegiatuen eta haien menpeko diren karbonikoen arteko oreka mantentzea geroz eta zailagoa da, orde. Hori gutxi balitz, gizarte justuago baten alde eragindako gehiegizko kontrolaren aurka borrokatzeko prest dagoen disidentzia eratzten ari delako susmoa geroz eta sendoagoa da.

Sistemak ez du akatsik onartuko.

"'Mitoaroa' zer den deskubritzen ari naiz"

PELLO REPARAZ ZETAK

'Mitoaroa I' eta 'Mitoaroa II' ondoren San Mames izanen da ZETAKen ikuskizunaren hurrengo geldialdia; Zinemaldian zuzeneko film laburra grabatu zuten ere

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

San Mamesen izango du hurrengo erronka ZETAKek 2026ko ekainaren 19an eta 20an; 20ko sarrerak salmentan jarri eta egun berean agortu ziren, eta 19rako gutxi batzuk gelditzen dira. Iruñeko *Mitoaroa I* eta Ilunbeko *Mitoaroa II*-ren ondoren, etorkizunera bidaia egingo du Pello Reparazek *Mitoaroa III: Mariren etorrera* ikuskizunean. Tartean Zinemaldian film labur bat grabatu zuten, eta abenduan abesti berria kaleratuko du.

Nola kudeatzen da gertatzen ari zaizun hau guztia?

Ez dakit; oraindik ez dakit nola kudeatzen den. Agian hemendik hilabete batzuk barru esango dizut, baina proiektu batetik bestera salto egin dugu, eta pixka bat odisea horretan bizi gara. Orduan, ingurukoen laguntzaren eta terapiaren arteko konbinazio batekin espero dut hurrengo hilabeteetan ondo ulertzea gertatzen ari zaigun hau guztia, eta digeritzea. Ikusiko dugu. Momentuz, ez dakit erantzuten.

Oraindik oinak lurrean jarri gabe?

Hori da. Agian hori izango litza-teke egokiena, baina proiektu batetik bestera salto egin dugu. Ez bakarrik *Mitoaroa I*-etik *II*-ra egin dugun saltoa; Ilunbe pasa eta Zinemaldian Sartagudako alargunen inguruko film labur baten zuzeneko grabaketan sartu gara, eta hemendik beste gauza batera goaz, San Mames. Az-

kenean, zurrumbilo moduko batean zaude eta oraindik ez daukazu ikuspegi orokorra gartzeko gaitasunik.

Baina gustura.

Guk musika herrikoia egiten dugu, eta musika herrikoia egiten dugun horretan harreman batez ari gara, jendea eta gure proiektu artistikoaren arteko harreman bat; harreman horretan bistakoa da jendeak gureari babes ikaragarria ematea erabaki duela, eta modu batean edo bestean mezua heltzen eta ulertzen dela. Ikaragarri poztekoa da; gauza handia da, eta musika herrikoia testuinguruan ospatzeko zerbait.

'MITOAROA'

Hasieratik 'Mitoaroa' trilogia bat izan behar zela bazenekien?

Oraindik ez dakit trilogia bat den. Narratiboki bai; lehen *Mitoaroa*-tik intentzio bat dago, kontatzeko istorio sakonagoa edo osatuago bat. Hori hor dago. Gero egia da forma asko aldatzen joan dela hilabete hauetan, proiektua oso-oso bizirik dagoelako eta oso likidoa delako. Lan taldea ikaragarri motibatuta dagoelako honekin, eta horren eragina da momentuoro aldaketak, hobe-kuntzak eta norabide aldaketak jaso daitezkeela. Hori da ZETAK, eta *Mitoaroa*-k ere filosofia horretatik edaten du. Hasieratik intentzio bat dago, baina proiektu

tua ikaragarri likidoa dela esan dezakegu.

Beraz, San Mamesekoa ixteko du-zue?

Noski ixteko dugula. San Mameseko narratiba idatzita dago: zer gertatuko den, istorioak narratiboki eta kontzeptualki nondik eramango gaituen idatzita dago. Gauza da horrek zer forma, zer formatu eta zer inplantazio hartzen duen, eta zer errekurtsio narratibo eta tekniko erabiliko ditugun dena transmititzeko eta hori kontatzeko. Horretan ari gara orain lanean.

Nola sortu zenuen 'Mitoaroa'-ren unibertsoa? Nola izan da prozesua?

Nik ez dakit hau egiten, geroz eta argiago daukat. Nik lan egiten dut. Orduan, *Mitoaroa* zer den deskubritzen ari naiz ia gure publikoak deskubritzen duen heinean; ez aldi berean, baina ia-ia bai. Hain da guretzat berria mundu eta formatu hau, momentuoro ari garela gauzak deskubritzen. Gogoan dut *Mitoaroa I*-en aktoreen parte hartzea ez zegoela kontenplatuta, eta bi hilabete lehenago, zerbait azaltzeko errekurtsio narratibo bat behar nuen, publikoari ideia bat helarazteko, eta azkenean Javier Botetekin lan egitea otuzitzaian, jentil marjinatu moduko bat sortzeko, eta honen bidez beste gauza batzuk transmititzeko. Uste dut egun horretan dena aldatu zela. Bat-batean ikusi genuen bazegoela gure *Mitoaroa*-n beste



Pello Reparaz San Mamesen. IKER GOZATEGI

errekutso bat, errekutso aktoril bat, erabil genezakeena gure mezuak hobe transmititzeko. Hori bi hilabete lehenago izan zen. Horrek *Mitoaroa I*-erako forma hartu zuen bi hilabete horiek utzi zigutenarekin. Inflexio puntu horrek agian *Mitoaroa II*-n eragin gehiago izan zuen *I*-ean baino. Egia da *Mitoaroa II*-ren lanketa hasten garen lehenengo egunetik badakigula hor dagoela errekutso bat, Javier Botet dela, eta gero Yune Nogueras izan dena, Josean Bengoetxea, Aitziber Garmendia eta abar. Etengabe gauzak deskubritzen goaz. Hori da pixka bat egiten duguna; hori da *Mitoaroa*. Norbaitek uste badu dena ikaragarri argi dugula eta aurrerapen ikaragarriarekin eta aurretik gauzak ikusteko ezohiko gaitasun bat dugula, oso okertuta dago. Guk lan eta lan egiten dugu, eta unibertso hau deskubritzen ari gara; probak egiten eta terreno berriak hartzen.

Nola pentsatu zenuen 'Mitoaroa'-ren oinarria? Esanahia?

Nik *Aaztiyen*-ekin fikzioa jorratzeko grina iristen zait. Uste dut abestigintzan, Euskal Herrian, fikzioa nahiko baztertuta egon dela. Gauzak egin dira, eta ikaragarriak gainera, baina sentitzen nuen hor bultzada emateko aukera genuela. Unibertsoa sortze-
ra bidean eta *Aaztiyen*-en mitologiaren aldeko apustua ikusita, aldi berean Paul Urkijoren *Irati* filma berriz ikusi nuen eta horrek bultzada eman zidan esateko:

"Zergatik ez dugu guk horrelako fikziozko narratiba globalago bat planteatzen gure abestien gainetik?". Hori izan zen hasiera batean ideia. Narratiba honek *Aaztiyen* unibertsoetik edan du, eta zinematik edaten duela ere sinisten dut; kasu honetan *Irati*-k egin zuen horrelako inflexio puntu bat ere.

Nola hartu ditu lan taldeak eginda-ko proposamenak?

Mitoaroa-k daukan gauzarik onena lan taldea da. Zalantzarik gabe. Nik sinisten dut, eta lan talde osoak komentatzen duen zerbait da. Departamentu buru punta-puntakoak ditu *Mitoaroa*-k: Isabel del Moral, Laura Diez, Katrin Ginea sakandarra, Artzai sakandarra ere... Uste dut ikaragarri ondo ulertu dutela hau guztia, eta hori garrantzitsuena da. Ikaragarri ondo ulertu dute hau ez dela sekula egin, hau ez dela norbaiti disko bat grabatzeko eskatzen diozula; ez da hori. Hau da: ez dakigu nora goazen. Badakigu zer kontatu nahi dugun, baina ez dakigu nora goazen. Beraz, ez da erraza izango eta abentura horretan parte hartzeko halako esfortzu berezia egiteko prestutasuna duen jendea da guri baiezkua eman diguna. Ez garelako multinazional bat; ez dugu Warner, Universal edo Sony bat atzean. Ez dugu azpiegitura hori. Gu geu ari gara azpiegitura hori sortzen, eta horrek zailtasun asko dakartza eta prozedura falta horri aurre egiteko modu bakarra gogoia, ilusioa eta

proiektuan sinistea dira. Horixe da lan taldeari eskertu diezaio-
kedan gauza nagusia.

FILOSOFIA

'Mitoaroa III'-n etorkizunera bidaia egingo duzu, eta Mari agertuko dela aurreratu duzu.

Mariren etorrera deitzen da *Mitoaroa III*. Fikzioaren aldarrikapen ariketa horretan ari naiz ukitzen *Mitoaroa*-k har ditzakeen forma desberdinak. Iruñekoa 2025ean girotuta dago eta bi unibertso desberdin daude. Mitologikoak ihes egin dute. Mitologikoak dira gure inauterietako

"AZKEN HILABETETAN FORMA ASKO ALDATZEN JOAN DA, PROIEKTUA OSO-OSO BIZIRIK DAGOELAKO"

"SARTAGUDAKOEI GOGO, ESFORTZU ETA ARDURA HAU ESKAINI DIEGU; EDERRA IZAN DA"

"ZETAK-EN DNA-N DAGOELA USTE DUT; PROIEKTUAREN KONPROMISOAREKIN BAT DATOR"

pertsonaiek errepresentatzen duten kolektiboa; mitologia eta inauteriak bi gauza desbedin dira, eta horretaz ari gara, *cross-over* batetaz ari gara, eta fikzioaz ari garenean egin dezakegu eta egiten dugu. Hori da *Mitoaroa*. Iruñekoan izaki mitologikoek ihes egin dute eta gurera etori dira. Horrela amaitzen da; *Aralarko Dama* abestiarekin festa batean. Ilunben *prekuela* bat egin dugu. *Mitoaroa II*-n denboran bidaia egin dugu eta XV.-XVI. mendera joan gara, non gure fikzioan mitologikoek ihes egin dute, eta hemen dago Ilunbeko mezurik garrantzitsuena: inksizioagatik ihes egin zutela, baina gure fikzioan gizakiak berak ukitzen duen guztia suntsitzen duelako ihes egin dute ere, patroia zabalagoa da. Inksizioa ez du inork maite, espero, baina haratago doa. Gizakia bera da, eta gure naturak berak egin zuen gure fikzioan mitologikoek ihes egitea. Horregatik amaitzen da pertsonaia batzuen sakrifizio publikoarekin. Orain George Orwelli keinu egiteko garaia da, eta 1984 liburua erreferentziatzat hartuz eta keinu eginez, 2084 urtera joko dugu *Mitoaroa III* etorkizun distopiko baten markoan kokatzeko. Kontrapolarizatuta, poliziala, militarra... Hortik joko dugu. Fikzioa aldarrikatzeko bidean ikaragarri miresten dudan Orwellen lanak eragina izan behar zuen *Mitoaroa*-n.

Zuzeneko film laburra grabatu zenuen Zinemaldian. Nola sortu zen?

Erokeria izan da; gehienbat Ilunbetik irten eta honetan sartu garelako. Guk badugu Nafarroa Hegoaldera begiratzeko konpromisoa. ZETAKek Nafarroako iparraldean, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian espazioak hartzeko aukera dauka, baina Nafarroa Hegoaldean ez da horrela. Iniziatibak gurea izan behar du, bestela ez gara bertan joango. Orduan, Andosillan izan ginen eta, udan, Sartagundan kontzertu bat eman genuen. Bertako historia ezagutzen, alargunen istorioan sakonago sartu nintzen; ulertu nahi izan nuen, zer izan zen hura, beraien historia ikasi, eta benetan hunkitu ninduela kontzertu horrek. Sartagudako jendearekin, gazteekin, bertan euskararen alde borrokan dabiltzan gazte eta ez hain gazte horiekin hartu eman

ezin ederragoa izan genuen kontzertu horren markoan; haiei esker atera zen kontzertu hori aurrera. Hor zerbait piztu zela sentitzen dut. Piztu zen hori, modu batera edo bestera, ikusi nuen guk ahots nahikotxo dugula ezinbesteko nafar istorio hori jarraitzen gaituen jendeari helarazteko. Orduan, aukera ederra suertatu zitzaigun El Terrat produktorakoek eskaini zigutenean Zinemaldian parte hartzea. Eurek eskaini zigutena izan zen bi abesti jotzea, eta guk bueltan bota genien zuze-
nean film labur bat grabatzea. Hori da egin duguna. Sartagudako alargunen eta eraildakoen istorioa jendeari helarazteko film labur baten grabazioa egin dugu. Ederra izan da. Azkenean, uste dut ZETAKen DNAn dagoela eta proiektuaren konpromisoarekin bat datorrela. Hori sentitzen dugu, eta Sartagudakoei gogo, ilusio, esfortzu eta ardura hau eskaini diegu.

ETORKIZUNA

Abendurako abesti berria kaleratu duzu, ezta? Lan berri baten aurrerapena?

Abesti berria kaleratuko dut; ez da lan berri baten aurrerapena. Abesti honek bizi propio eta zergati propio bat izango du, niretzako oso garrantzitsuena den zergati bat.

Zer gelditzen zaizu egiteko? Horretan pentsatzen duzu?

Nahiko nuke horretan pentsatu, egia esan. Egia da ez dudala betarik izan esertzeko eta pentsatzeko. Argentinara biran goaz, eta agian egun horietan tartea hartuko dut nire buruarekin hausnartzeko eta ikusteko zer datorren gero. Azkenean, bizitza pasatzen dugu etorkizunera begira eta etorkizuneko proiektuak lantzen. Atzera begiratu eta zer ikusten dut? *Txarrenari onena* atera genuen momentu hori, Altsasuko abestia; ez zegoen nire plangintzan, eta egin ditudan lanetatik oso txoko berezi batean gordetzen dut. Sartagudakoa ere duela bost hilabete ez zegoen plangintzan, eta orain niretzat ezin bereziagoa den txoko batean gorde nahi dut. Ziur nago hala-koak sortuko direla. Alde horretatik, nahiko lasai nagoela esan beharra dut. Uste dut izango dugula zer esana, zer sortua eta zer eragin gizartean. Lanean jarraitu behar.



Tomas Etxarri, Pello Senosiain eta Juan Manuel Galarza Benignoren omenaldiaren antolatzaileak.

"Auzolanik egiten ez bada, hobe ez egitea"

Benigno Mendia urdindarraren heriotzaren hamargarren urteurrenean 'Hamarretatik hamar!' egun osoko omenaldia antolatu dute, urriaren 11n, Urdiainen. Antolakuntzan, besteak beste, Juan Manuel Galarza, Tomas Etxarri eta Pello Senosiain daude

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

1 Nor zen Benigno Mendia?

Urdiainen pertsona berezia zen; jende asko berarengana joaten zen. Berak pentsamendu eta adin desberdineko jendea biltzen zuen; ez dakigu nola baina denak elkartzen zituen. Jendea batzeko dohain berezi bat zuen; lan egiteko, juerarako... Hainbat arlotan ibiltzen

zen: ikastolan, Bildun eta HBn aurretik, herrigintzan... Zerbait berezia zeukan. Oso baikorra zen ere, beti aurrera egiten zuen. Gauzak ezkor ikusi beharrean, buelta ematen zion. Denok batera egin behar genuela esaten zuen, hori da herria egitea. Errespetu guztiarekin egiten zuen; ez dakigu nola, erreza hori ez daukagu. Errezeta hori zen Benigno.

2 Zergatik omenaldia antolatu?

Benignoren heriotzaren hamargarren urteurrena da. Data berezia da, eta pentsatu dugu omenaldia egitea eta egun polita pasatzea.

3 Nola antolatu duzue?

Garaiz pentsatu genuen, duela urte eta erdi gutxi gora behera eta geldi-geldi lotu dugu dena.

Bere plaka aldatzeko zegoen eta esan genuen: Egingo dugu zerbait?

4 Eta jendea batuz joan da.

Ezta aterik jo behar Urdiainen. Benignori omenaldia egin behar diogula esan, eta ateak zabaltzen dira. Jendea prest dago. Hasieran esan genuen plaka hondatuta zegoenez, konpondu, aldatu eta auzate bat egitea. Gero zer egingo dugu? Bazkari bat? Batekin eta bestearekin hitz egin eta taldea handitzen joan da. Jendea prest agertu da: "Zer egingo duzue? Ni ere prest nago!". Sakanako toki askotatik etorriko da jendea, Ziorditik Lakuntzara ia herri guztietatik. Urdindarra zen, baina internazionala.

5 Zenbat pertsona ari zarete lan taldean?

Bost edo sei pertsona. Printzipioz *top secret* zen, eta pixkanaka zabaldu zen.

6 Auzolana ere izango da?

Garbi dago. Horrelako festa bat, Benignoren izeneko festa bat, auzolanik ez bada egiten, hobe ez egitea. Hura zen auzolanen defendatzailea eta sortzaile izugarri bat. Orduan, horrela festa baterako zer egin behar genuen, bazkaria eskatu? Ezta pentsatu ere. Guk egin behar dugu dena. Berarendako dena auzolana zen.

7 Ez da egiten zaion lehenengo omenaldia, ezta?

Bai, lehenengo omenaldia bada. Hil ondoren plazan plaka jarri zen eta festa txiki bat egin zen, eta orain data berezia denez zerbait merezi zuela pentsatu genuen eta horrela sortu zen. Hasieran gauza sinplea izan behar zen,

baina jendea animatuz joan da. Gazteak inplikatu dira ere.

8 Eta errepikatuko duzue?

Aurrekoan batek esan zuen: Zergatik ez dugu urtero egiten? Eta zergatik egin behar dugu urtero? Egund bat da. Gero pentsatuko dugu. Haren figura ez dugu sekula ahaztuko. Egundero agian ez da etortzen, baina egund askotan tap! Burura etortzen da. Hark zer egingo zuen? Aurrera egingo zuen.

9 Filosofia horrekin prestatu duzue?

Ahal duguna, bai. Saiatu gara. Gazteek ere jaso dute; iritsi zaie. Hazia bota zuen eta loratzen hasi da. Badira asko ezagutu ez zuten gazteak, baina berari buruz hitz egitean zerbait geratu da. Urtero loretxo bat ateratzen dela uste dugu.

10 Zer prestatu duzue?

12:00etan etxajua, aurrekua, auzatea eta txaranga izango dira. 14:00ak aldera bazkaldu eta ondoren kantaitan Haritz eta Amaiur-rekin. Haren omenezko bideo bat muntatzen ari gara, eta proiektzioa egingo dugu. Sekretua da, ez dakigu zer atera behar den. Taldeko pertsona bat ari da horrekin, eta polita da hori. Bokata batzuk, eta gero gorputzak aguantatzen duen arte kontzertuak. Bera egongo balitz seguru bere ukitua emango ziola.

11 Zein izango da unetxorik gogokoena?

Egun osoa, baina politena hasiera izango da. Etxajua botatzeko momentu hura. Urduri xamar gaude. Hasieran esaten genuen: egingo dugu... Eta eguna ari iristen den heinean urduritzen ari gara.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabeteen euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena _____

Abizenak _____

NA/IFZ _____

Helbidea _____

Herria _____

Telefono zenbakia _____

Emaila _____

Bankuko kontu korronte zenbakia:
ES _____



guaixe
fundazioa
948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus

